

TOKIKOM

2010eko abendua | 99. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria



**Distira
egingo dugu
2011n**



Derio



Lezama



Loiu



Larrabetzu



Sondika



Zamudio
Udala
Zamudio



Txorierriko Mankomunitateak eta Udalek
zorionak eta urte barri on opa deutsueez





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Juan Luis Goikoetxea, Pospolin, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Imanol Álvarez, Oihana Astobiza, Jabi Agirre, Belen Gana, Jesús Pedrero, Itsasne Zubiri, Gotzon Barandiaran, Mikel Etxebarria, Xabier Díaz, Juanxu Bilbao, Lurdes Etxebarria eta Aioli

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Efrén Vázquez



26 Zorritzetan euskara elkarte



36 Txernobil elkarte

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Edozein garaitan
- 12 Gurean izan da... Efrén Vázquez
- 14 Gaztea eta... Denis Sola
- 17 Guztientzako Gabonetako
- 22 Euskararen Eguna
- 24 Zorritzetan Lezamako euskara elkarte
- 30 Txorierriko jatetxe bikainak
- 32 Loiu argazkitan
- 34 Sondika moto
- 36 Elkarateak/Taldeak... Txernobil elkarte
- 38 Osasuna... Buruko mina
- 40 Teknologia... Teknologia erabili baino gehiago
- 41 Aikorrizketan... 2011 mosuz hasiko da
- 42 Sukaldaritza
- 45 Denborapasa

• PAKETERIA ZERBITZUA • BUZONEAKETAK • KARTEL IPINKETAK • MARKETIN ZUZENA • PUBLIZITATE BANAKETA •

TIPS@ ZAMUDION
Torrelarragoiti ind., P-7 B, 1. pab.
Tel.: 944-525 086
Fax: 944-525 088
sondika@tip-sa.com

ETXERAINO



943-59 29 50

DONOSTIA • BILBO • ANDOAIN • IRUN • ZAMUDIO

etxeraino@etxeraino.net



IMANOL ÁLVAREZ
(Filosofian lizentziatua)

Kuriosoa, leloa; gure bizitzaren hariak nahitaez maneiatzen dituen logika ekonomikoaren lehen mandamendua. Baina errearen sukarra aspaldi bukatu bazen ere, gaizotasunak badirau. Denbora urrea da beraz,... urrea denbora dela kasik esango nuke nik. Orain dela gutxi Atxagari irakurri nion legez, "... paradisua promesten digun logika ekonomikoak, kasurik onenean, benetako garrantzia duen gauza bakarra kentzen digu, denbora".

Zenbat diru behar dugu bizi izateko?

Denbora urrea da

Zenbat denbora libre? Interesgarriak bezain alferrikakoak dira galdera horiek. Pertsonak beste erantzunak egon arren, bakar batean laburbil daitezkeelako: duguna. Ze erremedio... Beharizan kontzeptuak subjektibitatearen sakontasuneraino hondoratzen gaitu, baina burua atera nahian, bizitzaren garai ezberdinetan beharizan berberak ez ditugula onar dezakegu. Ez ditugu beti gastu berdinak, ezta denboraren premia bera ere. Gure baimenez eraiki den sistema honek -guk eraiki dugula gehiegi esatea izango litzatekeelako-, ordea, ez ditu honelakoak ulertzen. Zortzi orduan, eta hortik gora, lan egiten dugu gure seme-alaben heziketa, aitona-amonon zaintza, aisialdia edo plater aurreko zinatatuak ordaintzeko. Zorionekoak gu, iratzargailuaren beharra dugun bitartean...

Baina krisi handi hau ere subjektiboa da oso, begira dezagun bestela gure ingurura: nork ez du autorik?, nor ez da oporretan joaten?, nork ez du arropa berria urtero erosten?, nork ez du astero kanpoan afaldu eta trago batzuk hartzen?... Autoen zaldiek,

hotelen izarrek, arroparen markak edo telebisten habeteek baino ez gaituzte ezberdintzen. Bien bitartean etxebizitzaren prezioek berdintsu jarraitzen dute, hori bai benetako beharizana! Besteak, tira, dirua ez da inoiz gehiegi; bizioa, gutxi, akaso. Logika ekonomikoak gudan sortu duen etengabeko krisian murgildu ginen aspaldian. Eta denbora? Erosi egiten da. Baina preziatua denez eta gutxi dugunez kalitatezkoa izan behar du, garestia! Ze erremedio beste behin...

Gogoeta honek ez du kritika egiteko asmorik; hatz erakuslea luzatuz egiten den kritika horietako bat ez da, behintzat. Beste bizimodu baten aldarrikapen txikia baino ez da. Gero eta gehiago dira nire inguruan diru nahikoa baina denbora liberrik ez duten lagunak, baita tamalez denbora osoa libre dutenak ere... Zaila da ulertzea populazioaren erdiari falta zaiona beste erdiak izatea, eta alderantziz. Ederra da askatasuna, bakoitzak diruarekin egin dezala nahi duena! Denbora libre gehiago erosi ahal izatea ere ederra litzateke.

Korrika 17: Trebiñutik-Donostiara

Korrika 1980an sortu zenetik 30 urte pasatu diren arren, AEK-k, oraindik ere, herritarren laguntza behar du bere proiektua aurrera atera ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) diru-laguntza politika hobetu bada ere, Nafarroan eta Iparraldean jasotzen diren diru-laguntzek ez dute jardun arruntaren ehuneko txiki bat baino estaltzen. Gainera, EAEn ere diru-laguntzen politikan atzerapausoak emango ez ote diren zalantza daukagu. Bestalde, badaude AEKn hamaika egiteko ezin direnak diru-laguntza publikoen bidez bete, esaterako, matrikulazio prezioak mantendu edota jais-tea AEKren doakotasunaren aldeko aldarria-



BELEN GANA
(Irakaslea)

ren bidetik. Horregatik guztiagatik, duela hiru urte, kanpaina berri bat jarri genuen abian AEKn: "Korrika Laguntzailea" kanpaina, Korrika bera antolatu ahal izateko balio duena, eta txorierriarroi mezu honekin aurkeztu dizueguna. Bi urterik behin Korrika laguntzaile bihurtzen denak 12 euroko diru-laguntzaren truke (0,5 euro hilero) beherapenak jasoko ditu katalogo batean adierazitako dendetan, komertzio-kolaboratzaile batzuei esker, eta baita pin bat ere, oroigarri gisa. Denok ezagutzen ditugu Korrika laguntzeko erak: dagoeneko euskaltegietan duzuen Korrika arropa erosi, antolaketan lagundu, kuestazioan parte hartu, Korrika lagun kanpaina, eta, zelan ez, kilometroa erostea eta korrika egitea! Has zaitezte, beraz, beroketa-arietak egiten! Korrika badator!

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
teistorra, solomoak...

Plater aurrekoiznatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746

Mitxine, 6. beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

TOTOAN eta Itzarriko liburuak, Durangoko Azokako salduenetarikoan artean

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak eta Itzarri aholkularitza enpresak liburu bi aurkeztu dituzte Durangoko Azokan: *Futbola, oinarritik euskaraz* eta *Benjamin eta aurre-benjaminen futbol entrenamenduaren urteko plangintza*. Bigarren liburuan Kirolplaning enpresak ere hartu du parte. Lanek futboleko euskara bultzatzea dute helburu, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Txorierriko Mankomunitateak babestu dituzte.

Liburuen aurkezpena abenduaren 3an egin zen Landako elkartegian. Bertan hauek hartu zuten parte: Xabier Goienetxe TOTOANeko presidentea; Koikili Lertxundi Athleticeko jokalaria eta Itzarriko ordezkaria; Mikel Aranburu Errealeko kapitaina; eta Asier Landa Kirolplaning enpresaren ordezkaria eta bigarren liburuaren egileetarikoa.

TOTOAN, Itzarri eta Kirolplaning-eko ordezkariak pozik azaldu dira liburuak izan duten oihartzun eta harrera onarekin. Izan ere, ikusmin handia sortu dute bisitarien artean eta biak Azokako libururik salduenetarikoan artean egon dira.

Beste alde batetik, Toti Martínez de Lezea eta Gotzon Barandiaran idazle larreibetzuak ere lan berriak eraman dituzte Durangoko Azokara. Toti *Nur eta magia kanpamendua* gaztetxoaren liburuaren eraman zuen; eta Barandiaranek,



Argazkia: Aiol

Errotik eleberria. Lan bi horiek ere Azokako salduenetarikoak izan dira.

Bizia eta ona

Gerediaga elkartek balorazioa egin du Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 45. edizioari buruz. Nerea Mujika elkarteko presidentearen esanetan, aurtengo azoka bizia eta ona izan da. Azokaren ezaugarri nagusia galdu barik, ekimen berriek ere lekua finkatu dutela

esan du. Ahotsenea, Haur Literatura Areatoa, aurkezpenetarako aretoa edota Azoka TB jarri ditu horren adibide. Bisitari eta salmenta kopuruari dagokionez, gorabeheratsua izan dela aipatu du. "Abenduaren 6koa izan zen egunik jendetsuena eta salmentarik gehien ere egun horretan egin ziren. Orokorrean aurreko urteetako kopuruari eutsi dio azokak, eta salmentak ere onak izan dira".

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Cda. 537
COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

HARATEGIA
ALBERTO



Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna

leizakola lehendakari 7 (Zamudio)

Hilerriko kapera eraberritzen dabilta Lezaman

Otsailean izandako ziklogene-siak kalteak sortu zituen Lezamako hilerriko kaperaren teilatuan, eta handik hona hainbat arazo antze-man dira. Horrela, bada, itoginak eta hezetasuna daude eraikinean, eta teila batzuk mugitu egin dira. Era berean, kalteak ere badaude egurrezko egituraren eta, ondorioz, teilatua eraits liteke. Udalak eraikina eraberritzeko lanei ekin die eta, besteak beste, teilak eta egurrezko latak kendu eta egur berria ipiniko da. Horrezaz gainera, iragazgaizte lanak egingo dira eta zeramika mistoko teila gorri berriak jarriko dira. Teila-tu-hodiak eta aluminiozko zorrote-nak ere ipiniko dira, euri-urak jasotzeko. Lanetan 56.000 euro inbertituko dira. Bizkaiko Foru Aldundiak %90a ordainduko du eta Udalak, gainontzekoa. Lanak urtarillaren amaierako amaituta egotea espero da.



Kultur eskaintza zabala egin du Hori Baik azaroan



a: Hori Bai

Azaroa mugimendu handiko hilabetea izan da Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean. Kultur ekitaldi sorta zabala eskaini diete bertan herritarrei, eta gaztetxean jende piloa batu da. Horrela, bada, Mikel Urdangarin eta Anari abeslariak kontzertua eman zuten, eta Gotzon Barandiaranek argitaratu berri duen *Errotik* liburu-a aurkeztu egin zuen. Era berean, *Munstroa* lana antzeztu zen gaztetxean eta *Sagarren denbora* dokumentala eman zen.

Hori Baitik azaldu duten bezala, ekimenok ikasturte berriari hasiera emateko antolatu dituzte. "Herritarrei aisialdirako eskaintza eman behar diegula hausnartu dugu, eta hori eskaintza handia izan behar dela. Gainera, herriko jende ezberdina erakarri nahi dugu eta horregatik azaroan antolatutako ekitaldiak ere ezberdinak izan dira".

Helburua bete dute. Ekintzek arrakasta handia izan dute eta ekimen bakoitzean jendetza batu da. "Jendea gogoz geratu dela iruditzen zaigu, halako gauza gehiago egitera animatu gaituztelako. Ekitaldiak aurrera ateratzeko Hori Baik egiten duen ahalegina larrabetzuarrek eskertzen dutela esango genuke".

Elkarlana

Ikusminik handiena sortu zuen ekintza Gotzon Barandiaranen *Errotik* liburuaren aurkezpena izan zen. "Ez zen aurkezpen hutsa egin. Euskaldunak beharrez ibili ziren lagun bik garai hartako hainbat bizipen kontatu zituzten, eta Kukubiltxo-koek liburuak atal baten irakurketa dramatizatua egin zuten. Unai Iturriaga eta Etxahun Lekue bertsotan aritu ziren eta zuzeneko musika ere entzun genuen".

Etorkizunean ere azaroa bezalako hilabeteak antolatzeak asmoa dute Hori Baikoek. Horren haritik elkarlanean hasi dira herriko beste elkarte batzuekin (Txin-pasmendi, Gurrupide...) eta norbanakoekin. "Helburu nagusia guztion artean ekintza ezberdinak antolatzea da, eta hemendik aurrera Larrabetzun kultur mugimendu sendoagoa igarriko dela uste dugu. Herri txikia da gurea, eta beharrezkoak ikusten ditugu elkarleen arteko harremana eta elkarlana".


hotela
jaketxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



ASADOR
ARAMENDI

EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa: 94 452 11 58
ZAMUDIO



ANKAPALU

LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

RI *Remirez Instalaciones S.L.*

ENPRESA INSTALATZAILEA:
BEROGAILUA, GASA ETA URA

Tel/Fax: 94 455 82 96 / 606 39 33 46
E-mail: reinsta@euskalnet.net

Iturrikoetxe, 3
48195 Larrabetzu (BIZKAIA)



www.iscitto.com
iscitto@euskalnet.net

USTIAPENA,
SALMENTAK, SAT

MAKINA AUTOMATIKOAK:
KAFEA, LATAK,
SNACK, TABAKOA

Idorsolo ind., 5. nabex 10. pab - 48160 DERIO
Tel. 94 454 33 34
656 78 66 84 / 85 - Fax: 94 454 29 04

Vulcanizados DERIO

Herriko plaza, 5 behea • 48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 94 454 00 21



Txorierrri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31



ORAIN
GAUTXORI TABERNA
ERREMENTERI KALEAN
GIROK ONENA
LAGUN ARTEAN

PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA

Gabonetan be
euskeraz bizi

ZORIONAK



zamudion
euskeraz?
hoba ez!



**ZIRIKADA
JATETXEA**

www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gaztelumendi Plaza, 1
48160 Derio

Alboka Bar

☎ 94 657 44 60



Sollube, 2 - behea / DERIO / 48160
✉ santosalboka@hotmail.com

HORTZ KLINIKA

GANDIAGA

94 608 62 30 - 31

klinikagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Udondo taldeak punteria egin du

Abenduaren 4tik 7ra bitartean, Dardo Espainiako Txapelketa izan zen Lloret de Marren, Gironan. Txapelketan Udondo Derioko taldeak hartu zuen parte Amateur C kategorian. Derioztarrak lehenengo aldiz aritu dira estatu mailako txapelketa batean, eta oso tiratzaile onak direla erakutsi dute. Horrela, bada, 11. postuan gelditu dira taldekako txapelketan; bosgarren postuan, binakako txapelketan; eta hirugarren postuan, banakako txapelketan. Germán Gómez eta Aitor Ferreiro Udondo taldeko kideek esan diguten bezala, oso pozik daude emaitzekin; hala ere, arantza txiki bat dutela itzuli dira Txorierrira. "Aukera gutxi izango genuela pentsatuz joan ginen Lloret de Marrera, eta ondo pasatzea hartu genuen helburutzat. Baina gure buruarekin haserre bueltatu ginen. Izan ere, apur bat gehiago prestatuz gero, askoz emaitza hobetoak izan genitzakeela uste dugu". Nolanahi ere, datorren urteko txapelketan edukiko dute arantza kentzeko aukera. "Kategoriaz igoko gara eta maila handiagoa izango da. Baina gure maila ere altuagoa izango dela sinetsita gaude". Udondo Derioko dardo taldea orain dela urte eta erdi sortu zen, eta dagoeneko Euskadi eta Espainiako Txapelketan hartu dute parte. Taldea zazpi lagunek osatzen dute.

Larrabetzu, saharar herriarekin bat



t: Inés Serrano / a: Lurdes Etxebarria

Abenduaren 4an hainbat lagun bildu ziren Larrabetzuko plazan, azken hilabeteetan izandako saharar herriaren kontrako erasoak gaitzestzeko. Horren haritik, Larrabetzuko udalbatzan aho batez ebazti zuten adierazpen bateratua egitea, Saharako herriari euren elkartasuna adierazi eta jasandako eraso bortitz eta neurrigabeak behin betiko gelditu daitezela eskatzeko. Herritarrek ere deialdi zabala egin zuten elkarretaratzean parte hartzeko eskatuz.

"Sahararekin elkartasuna" lelotzat zuen pankarta baten atzean batu ziren herritarrak eta hiru alderdi politikoetako ordezkariak adostutako agiria irakurri zuten. Gertaerak gaitzesteaz gainera, Marokoko jokabidea salatu eta hainbat neurri proposatu zituzten. Esan bezala, neurriok udaletxeetan ez ezik, beste eremu politiko eta sozialetan ere, baita nazioartekoetan ere, bultzatu beharrekoak dira, harik eta herri honek autodeterminazio erreferenduma burutzeko baldintzak bermatuta izan ditzan arte.

Magalarte txakolina

ARETXABALETAK HONDA ETA BOTE ARATZA

75 cl. 10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina Denominación de Origen

Lot: 1-25

Iñaki 94 455 65 08 **Jabi** 94 452 14 31

GAZTELEKU TABERNA

Andrea Mari, 6 - Larrabetzu
94 455 88 97

oluzko orreak egiten duguz

Construcciones-Reformas

IÑIGO BARCENA

Igeltserotza orokorra

Arbolantza kalea, 8 - 1. izk. ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

ANULACIONES SEPTICAS

MUNGIA

Garbiketak eta mantentze-lanak | Erosketak | 24 orduko zerbitzu

Pinta, 2C, 4. solera | 48170 Zamudio BIZKAIA
T: 94 446 82 09 | Fax: 94 446 75 99
murgia@saneamientosungia.com | www.saneamientosungia.com

luz zamudio

ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Abenduak 23
Arratsaldean
Frontoian



DERIO 2010

merkatari eta zerbitzuen
Elkarteko Jaia

ZORIONAK

Abenduak 30
TXU-TXU trenak
Gaztelu puzgarriak
tailerrak,
autoak,
animazio musikala



Paiaak hitzaldia eskainiko du Derion

Fredi Paiaak urteak eman ditu euskal jakintza batzen. Lan horren berri urtarilaren 27an, arratsaldeko 7etan, emango digu Derioko Gurea Aretoan. Herri jakintza zelan batu duen kontatuko digu Paiaak, baita hori etorkizunean zelan eta zertarako erabili ere. Hitzaldia Txorierriko Berbalagunak antolatu du, Derioko euskaltegi biekina batera. Ekitaldia doakoa da, eta herritar guztiei dago zuzenduta.

Gurutzeak, Troquenor enpresan

Troquenorreko enpresa-batzordetik azaldu dutenaren arabera, enplegua erregulatzeko bosgarren espediente onartu diote enpresari. Ondorioz, 37 lagun joan dira kalera. Troquenor Sondikako enpresaren langileek hilabete bi daramate greban. "Neurri honen kontra ibili gara protestatzen, baina gure jarrerak prozesua atzeratzeko baino ez du balio izan. Enpresa ondoko landa batean gurutzeak jarri ditugu, bat kaleratutako langile bakoitzeko". Etorkizunak ezarriko du enpresaren eta langileen norakoa. Bitartean, greban jarraitzeko asmoa dute langileek, eta kontzentrazioa egingo dute enpresako atean bertan zein Eusko Jaurlaritzaren aurrean. Langileak kaleratu beharrean, enpresa-batzordeak beste proposamen batzuk egin ditu: erretiro aurreratuak edo bajak sustatzea, esate baterako

Ekidazu abesbatza, Parisera kantari

t: Jabi Agirre

UNESCOK Nazioarteko Festibala antolatu du datorren urterako Parisen, eta Ekidazu Lezamako abesbatzak bertan parte hartzeko gonbidapena jaso du. Festibala hamazazpigarren aldiz egingo da. Ekidazuk saio bi emango ditu. Lehenengoa urtarilaren 28an, barikuan, izango da, Festibalaren haritik egingo den lehen kantaldian; eta bigarrena, hurrengo egunean, UNESCOren jauregian egongo den kantaldi nagusian.

Korukideak gogotik dabilta Parisen eskainiko duten errepertorioa entseatzen,

eta abesti gehienak euskarazkoak izango dira. "Gonbidapenean horrela adierazi zizgutelako. Jo ta ke gabiltza abestiok prestatzen, eta iaz ezagutu genituen Bilboko eta Zornotzako abeslari batzuk ere tarteko dira entseguetan, elkarrekin taldea osotzeko".

Abesbatza urtarilaren 27an aterako da Lezamatik, eta bidaia autobusez zein trenez egingo dute. "Diru-laguntza eskatu dugu zenbait erakundetan, baina, arrazoi ezberdinegatik, erantzunak ezezoak izan dira". Urtarrilaren 30ean Lezamarantz abiatuko dira eta itzultzean, nazioarteko topaketan berri emango digute.



OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apezetx@euskalnet.net

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari kudeatzailea
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

Torrearragoiti ind. P. 8-B
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel: 94 452 22 59 - Fax: 94 452 22 34

Ala-apaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierriko elorbidia, 6
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



Edozein garaitan

Gorostia da urteko edozein garaitan Gabonak gogora ekartzen dizkidan landarea; Gabonek ere oroitzapen asko ekartzen dizkirate gogora...

Argazkia: Jesús Pedrero (IZAE Zamudioko argazki taldea)

LOIU GURENA
Unbexiki bidea, 9
48180 Loiu
Tel.: 94 453 00 49
loiu@gurena.com

DERIO GURENA
Zeroetxe Enparantza, 5
48160 Derio
Tel.: 94 454 48 08
derio@gurena.com

INDAUTXU GURENA
Gregorio de la Revilla, 28
48010 Bilbo
Tel.: 94 444 34 04
indautxu@gurena.com

Laster TXURDINAGAN ere
zabalduko dugu egoitza

www.gurena.com

TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

- ADINEKOEN EGOITZA
- TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK



"Laster etorriko da garaipena"

EFRÉN VÁZQUEZ | moto-gidaria

Euskal Herrian asko dira motorzaleak, eta gaur egun berriro dute nor miretsi. Izan ere, azken urteotan bada euskaldun bat 125 cc-ko Munduko Txapelketan parte hartzen dabilena: Efrén Vázquez bilbotarra. Herri Torrontegiren lekukoa harturik, haren babespean garaipenak gurera ekartzen saiatuko da. Efrén Sondikan egon zen, motor erakusketa bat antolatu baitzen bertan.

t: Gaizka Eguskiza

Zelan Sondikan?

Oso ondo. Izugarrizko lana egin da, ekimena aurrera eramateko, eta ondo baino hobeto atera da dena azkenean. Ekitaldi polita izan zen; Sondikarako ez ezik, Txorierrri, Bizkai eta Euskal Herri oso-rako ere bai. Aspaldi honetan motor arloko kiroletarako zaletasunak behera egin du, baina horrelako ekitaldiek berpiztu egiten dute zaletasuna. Erakusketan primeran hartu gintuzten eta guk saritzat hartu dugu bertan egoteko aukera.

Zer da gehien harritu zintuena?

José Ángel Mendibilek erabilitako motorrek harritu ninduten. Gidari hori motokrosean aritzen zen eta, haren motorra ikusten duzunean, erabat txundituta gelditzen zara, mugimendu eta salto ikaragarriak egiteko gauza baita. Gainera,

"Denboraldia pozik egoteko modukoa da, ahal izan dudan emaitzarik onena lortu dut-eta"

lehiatzeko motorrak ere ikusi genituen, baina horiek ez zitzaizkidan hain ikusgarriak iruditu, aurretik ere ikusiak nituelako.

Zer deritzozu 2010ean egindako denboraldiari?

Urtea ondo hasi zen, eta denboraldi aurrean primeran ibili nintzen. Hala ere, urtea aurrera joan ahala, okertu egin ziren gauzak: lasterketa batzuetan motorra ez zen batere ondo ibili, erori egin nintzen...

"2011n ez diot ezeri uko egingo: irabazteko aukera badut, gogo biziz saiatu egingo naiz"

Dena dela, gogor egin genuen lan, eta buruaren aldetik ondo ibili ginen. Azkenean, bosgarren postuan amaitu dut Munduko Txapelketa, eta pare bat aldiz egon naiz podiumean. Beraz, pozik egoteko modukoa da, ahal izan dudan emaitzarik onena lortu dut-eta: gure aurretik faboritoak baino ez dira ibili.

Garaipenen bat bota duzu faltan?

Tira, garaipenak lana borobiltzen du,





baina zaila da irabaztea. Podiumera igo-
tzea ere zaila da eta horretarako hainbat
alderdi izan behar dituzu zeure alde.
Agian, Qatar edo Jerezko lasterketetan
izan nuen irabazteko aukera, eta izugarria
izango zen, han garaipenen bat lortu ba-
nu. Hala ere, ezin dut motibazioa galdu:
ilusioari eta lanari eusten badiegu, ziur
nago laster etorriko dena garaipena.

**Datorren urtean Ajo Motorsport
taldean arituko zara. Zergatik aukeratu
duzu talde hori?**

Eskaintza batzuk jaso genituen dato-
rren urterako. Ajo Motorsport taldea gure
bila etorri zen eta interes handia erakutsi
zuen. Talde horretan ilusio itzelaz egiten
dute lan, bihotzez, eta txapelak tal-

dea izan da azken urteotan (2008an, Mike
Di Meglio; eta 2010ean, Marc Márquez).
Horrek bermea ematen dit, edo itxura ona
du, behintzat. Gero ikusi egin beharko da
nolako materiala dugun eskura. Dena de-
la, tituluei baino, ilusioari eta proiektuan
duten parte-hartzeari ematen diot gar-
rantzi handiagoa, eta horregatik aukera-
tu dut Ajo Motorsport taldea. Ea lasterke-
tak irabaztea lortzen dugun guztion arte-
an, eta, posiblea bada, baita Munduko
Txapelketa ere.

**Datorren urteari begira, zeintzuk
dira zure helburuak?**

Oraindik oso goiz da. Geziak helburua
ikusi barik botatzea bezala izango litzate-
ke pronostikoren bat aipatzea. Asma ne-

zake edo ez. 2011n ezeri ere ez diot uko
egingo, hori da esan ahal dudana gauza
bakarra: irabazteko aukerarik badut, gogo
biziz saiatuko naiz.

**Motoziklismoan aurrera egin duzu
beti: 2008an, 20. postuan bukatu ze-
nuen Munduko Txapelketa; 2009an,
14.ean; eta 2010ean, 5.ean. Hurrengo
urratsa txapelketa irabaztea da?**

Datorren urtean emaitzak hobetzea
dut helburu, baina iaz bosgarren bukatu
nuen txapelketa, eta oso zaila da hori
gainditzea. Nire ustez, ilusioari eta umila-
sunari eustea da garrantzitsuena, baita
zirkuituetan orain arte hartutako eskar-
mentua erabiltzea ere.

**Nortzuk izango dira zure aurkariak
2011n?**

Gidari guztiak. Lehiakortasun itzela
dago nire kategorian, eta ezin izango nu-
ke pilotu bakar bat aipatu.

**Marc Márquezek (aurtengo txapel-
duna), Pol Espargarók (hirugarrena)
eta Bradley Smithek (laugarrena) ez
dute parte hartuko 125 cc kategoriako
Munduko Txapelketan, 2011n. Horrek
kentzen dio lehiakortasunik txapelke-
tari?**

Ez dut uste. Sergio Gadea eta Héctor
Faubel sartuko dira lehian haien orde-
z, eta gidari bi horiek eskarmentu handia
dute. Dena dela, gidari guztiok gaude ira-
bazteko irrikan, eta izugarritzko ilusioz
lehiatuko gara 2011n. Iaz azkar aritu gi-
nen, eta aurten ere beste horrenbeste
egingo dugu. Zaila izango da, beraz, lehe-
nengo postuetan ibiltzea.

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak

ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAIRUAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK



Tf.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txorierriko etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48160 Derio (Bizkaia)

Tamara
Lapata-denda Osagarriak



Herriko plaza, 2
Derio
94 656 67 27

Doctor Luis Bilbao Libano, 6
Leioa
94 463 06 32
tamara.leioa@yahoo.es

DOCKING Viguera victoria PIKOLINOS DRASTIK Fluchos GIOS LPAO mustang Dansi Dehicas

"Askotan joan naiz kanpora, baina beti itzuli egiten naiz"

t: Gaizka Eguskiza / a: Itsasne Zubiri

Webguneak diseinatzen dituzu, baina zehatz-mehatz zein da zure lana?

Diseinatzeaz gain, maketazioa eta programazioa ere lantzen ditut. Dena dela, enpresen beharren arabera lan mota bat edo beste bat egiten dut.

Informatika munduan ibili baino lehen kimika ikasi zenuen EHUn, Leioan. Zergatik ez zara kimikalari aritu?

Lan merkatuak bultzatu ninduen. Karrera bukatu nuenean, ez nuen lanik topatu eta beste aukera batzuetan bilatzen hasi nintzen. Orduan, diseinu grafikoko ikastaroa egin nuen eta izugarri gustatu zitzaidan. Horren haritik, nire kabuz hasi nintzen programatzen, ikastaro gehiago egin nituen, eta azkenik berriro sartu nintzen unibertsitatera, Informatika Ingeniaritza teknikoa ikasteko. Eta gero esparru honetan hasi nintzen lanean.

Zer nahiago duzu, informatika ala kimika?

Programatzea gehiago gustatzen zait, baina ontzi bat esku artean dudanean, osaketa kimikoari begiratzen diot (kar, kar). Txantxak

DENIS SOLA | txorierritartua

Izugarri hazi da gure harana azken bolada honetan. Hori dela-eta, hainbat lagun etorri dira Txorierrira bizi izatera, eta Denis Sola bilbotarra horietako bat da. Denis Bilbon, Venezuelan eta Alacanten bizi izan da, baina gaur egun gustura dabil Derion.

alde batera utzita, etorkizunari begira bi karrera horiek uztartzea gustatuko litzaidake. Hemen ez dago oso zabaldua, baina Katalunia aldean polimeroak-eta lantzen dituzte, eta horrelako zerbait egiteko asmoa dut.

Lanaz gain, gitarra jotzen ematen duzu denbora. Nondik datorkizu zale-tasuna?

Familiarengandik datorkit, aitzak ere gitarra jotzen baitu. Gaur egun talde batean aritzen naiz eta power pop musika jotzen dugu.

Gustatuko litzazukeen musikagile profesionala jardun izana?

Egia esan, ez. Musika mundua oso konplikatua da. Batzuetan lan pilo bat duzu, eta beste batzuetan, lanik ez. Izarra izan banintz, musikagilea izatea gustatuko litzaidakeen, baina errealista izan behar zara: guztiok ezin gara izarrak izan.

Zu berez bilbotarra zara, baina Txorierrin, Derion bizi zara gaur egun. Zergatik etorri zinen gurera?

"Izarra izan banintz, musikagilea izatea gustatuko litzaidakeen"

Nire neska Alacantekoa da eta bertan bizi ginen. Hala ere, Txorierrira etorri zen lan egitera, eta orduan erabaki genuen hemen bizi izatea. Oso gustura gaude eta Txorierrin geldituko gara.

Txorierrri ezagutzen zenuen hona etorri baino lehen? Zer deritzozu?

Sondika ezagutzen nuen, besterik ez. Izugarri gustatzen zait Txorierrri.

Hainbat lekutan bizi izan zara: Bilbon, Alacanten, Venezuelan.... Zer dela-eta? Non sentitu zara erosoan?

Venezuelara joan nintzen nire ama hara joan zelako. Ikasketak zirela-eta, Bilbora itzuli nintzen. Geroago, Alacanten ere bizi izan naiz nire aita bertan bizi delako eta neska hangoa delako. Lekurik onena? Nire ustez, Bilbo. Askotan joan naiz kanpora, baina beti itzultzen naiz.

Eta berriro kanpora joateko asmorik baduzu?

Ez, epe ertainean behintzat ez daukat pentsatuta. Eta aldatzekotan Bilboko erdigunera joango nintzateke (kar, kar).





ONDO EROSI
JANARIA + FRUTA

ETXERA ERAMATEKO
ZERBITZUA
94 455 84 47

Andra Mari, 15 behea - 48195 Larrabetzu

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorieritar guztioi**



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76



LARRABETZU
MUSIKA ESKOLA

*Matrikula zabalik
ikastegi homologatua*

Errebale, 7 Behekoa
Tlf. 94.455.70.66
48195, -LARRABETZU
Derion, Institutoan



**LARRABETZUKO
ESTANKOA**

Tabakoa, prentsa, loteria, kiniela...

Andra Mari kalea, I LARRABETZU
T: 944 558 110



Garaioitza 121-A Lezama 94 455 56 44

Begoña
Estetika / Ileapaindegia

Jabe berriak

ESKAINITZA
Solarium bertikala:
10 saso
30 euro



LAPIKO/s.l.
Enkainamendu materialak - Beheraketa

IK

Bº, Garsiotza, 67 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tlf: 94 455 63 98 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 98

**CONSTRUCCIONES
LANDETANE, S.L.**



**ANDER ETXEBARRIA
MIKEL ETXEBARRIA**

Tfnoa. eta faxa: 94 455 65 82
607 54 77 67
607 23 99 42

Garaioitza auzoa, 142
48196 LEZAMA
Bizkaia

AIKOR! aldizkariak
urte distiratsua
opa dizue irakurle
eta iragarle
guztioi



JAN-TOKI
Jatetxea



La Cruz auzoa - Tel. 94-455 61 02 - Lezama (Bizkaia)

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIOIA: DURANDON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
Kurtzea industrialdea, z/g - 48196 LEZAMA
94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 - 48100 MUNGIA
94 674 33 40



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baseriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



volconsa DIVISIÓN
ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Zeure etxea intsonorizatu, doan
(Kostu osoa, AENAREN eskutik)

tel. 94 644 00 19 ■ faxa. 94 406 49 13
aislamientobilbao@volconsa.es ■ www.volconsa.es
Solube, 1 - DERIO



Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu

656 786 744 94 455 80 20

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku



Zenbatu Beharrik
Logopedia
Podologia

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txoneri etorbidea, 9 - Lorja | Asteaga eraikina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 857 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



**Oguiza
Hortz Klinika**

Kirurgia eta implanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak

Anguleri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558899

GOKO-GOKO LOHTIZUN

Astretaldetik zabalik
Ogile egutegia
Postaleak enbargatu



Garaioltza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
gokogokolohitzun@hotmail.com



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

48196 LEZAMA Bizkaia



S.A.T. LEGU
ERATZLEZINTZEN ETA REGO-LENDENAK

F.: 94 455 64 17 T.: 94 455 61 98

ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA



Txoneri Etorbidea 9, 4. 413
a.amondarain@euskalnet.net

48160-DERIO
T./Faxa: 94 454 44 98

GDITDIOLTZA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**

epetargi@excavazurmendi.com



MOBILA: 649 102 122
TEL./FAX: 944 554 158



desira
Bidera eta Oguiza Bidera

Irrati-frekuentziaren bidezko liftinga
Fotodepilazioa
Belzteko Sunless teknika
Ozonoterapia
Terapeutika-masajea
Atzazalak apaintzea

URIBE KALEA, 6 ESKUMAKO LORJA - DERIO - T.: 94 454 55 73



**Formación
y
Traducciones**

- Ingelesa maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitaterako azterketak prestaketa, EOI...
- Zerbitzu berriak: Ingelesezko laguntza-eskolak

Garaioltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremente 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

amformacion@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

Guztiontzako Gabonak

"Olentzero arratseko haizeak berrogei edo hiru hilabeteen segitzen du" dio atsotitzak. Guk ez dakigu ikazkinak haizerik ekarriko digun, baina ziur gaude opariak utziko dizkigula zuhaitzaren azpian edo tximinia ondoan. Urte zaharrak eta urte berriak ere ekitaldi sorta zabala ekarriko digute, guztiok ondo pasa dezagun.

Hori Baik antolatua (Larrabetzun)

Abenduaren 24an, barikuan

–18:30: Olentzero, zerratik abiatzekoa.

Abenduaren 25ean, zapatuan

–19:00: Bertso saioa.

Abenduaren 26an, domekan

–19:00: Folk kontzertua, Alboka 2.1. taldearen eskutik.

Abenduaren 28an, martitzenean

–22:00: *8 begi* antzezlan, Gilkitxaro taldearen eskutik.

Abenduaren 31n, barikuan

–Kotiloia.

Urtarrilaren 3an, astelehenean

–*Salda badago* dokumentala eta Eriz Zapi-rain zuzendariarekin solasaldia.

Urtarrilaren 6an, eguenean

–17:30: Umeentzako pelikula eta txokolata.



Split 77 taldea

Urtarrilaren 13an, eguenean

–Literaturaz berbetan Ur Apalategirekin. Arrekikili euskara elkartearekin batera antolatua.

Urtarrilaren 14an, barikuan

–Zea Mays eta Split 77 taldeen kontzertua.

Larrabetzu

Abenduaren 27tik urtarrilaren 7ra arte

–10:30-13:30: Jokoak, tailerrak... Lu-dotekan.

Urtarrilaren 3an eta 4an, astelehenean eta martitzenean

–15:30-20:30: Puzgarriak, kiroldegian.

Urtarrilaren 5ean, eguaztenean

–18:00: Haurrentzako diskoteka, kiroldegian.

–18:00: "Basajaun bikotea" Errege Magoen festa, Gure Etxean.

Urtarrilaren 7an, barikuan

–18:00: Ipuin kontalaria, Anguleri kultur etxean.



Zamudio



Abenduaren 24an, barikuan

–10:00: Plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

–Olentzero.

Abenduaren 27tik 30era bitartean

–16:00-21:00: Jolas parkea, kiroldegian.

Abenduaren 30ean, eguenean

–20:00: "Olentzerori gutuna" lehiaketako sariak banatzea, kiroldegian. Lagatzu euskara elkarteak antolatua.

Abenduaren 31n, barikuan

–Serantes mendira irteera. Arroeta mendi taldeak antolatua.

–1:00: Urtezahar eguneko kotiloia, Adintsuen Etxean.

Abenduan eta datozen hilabeteetan

–Janari batzea, Saharara bidaltzeko. Udaletxean eta DIA eta Eroski supermerkatuetan.

Urtarrilaren 19an, martitzenean

–20:00: *Erregea eta bufoia* antzezlan, Zamudiotarren. Lagatzu euskara elkarteak antolatua.

Peluteria
Estetika
94 455 81 44
Angulen 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia

ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Urbe Plaza, 1 - Beheko 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 94 19; (Aurreko txanda)

eleizalde
kafetegia
Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)
48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Abenduaren 23an, eguenean

–19:30: Pentagrama soinu elkartearen emanaldia, Kultura Etxean.

Abenduaren 24an, barikuan

–17:00: Olentzero eta Belen biziduna, Udaletxean.

Abenduaren 29an eta 30ean, eguaztenean eta eguenean

–11:30-14:00 eta 16:00-19:00: Umeen eta gazteen parkea, Goronda Beko kiroldegian. Madiber magoaren emanaldia eta berbena, Mugi-mugi taldearen eskutik.



Oketa

Sondika

Abenduaren 31ra arte

–“Sondikako Udala” XIX. Gabonetako Postalen Lehiaketako lanak, liburutegian.

–Tailerrak, jolasak, marrazkiak... Ludoteka In eta Iln.

–Basket txapelketa, kontzertuak, tailerrak... Gaztetxean.

Urtarrilaren 2an, domekan

–Bolaleku batera irteera, Gaztetxeak antolatua.

Urtarrilaren 5ean, eguaztenean

–18:00: Errege Magoen desfilea, aireportuko lehengo terminaletik.

Urtarrilaren 30ean, domekan

–Oketara irteera (Gorbeia Parke Naturala). Izena ematea: urtarrilaren 27ra arte, liburutegian.

–“Sondikako Udala” XXIII. Areto-futbol Txapelketaren hasiera. Izen ematea: urtarrilaren 10etik 23ra, Goronda Beko kiroldegian.



Argazkia: Asier Sanz

Lezama

Abenduaren 24an, barikuan

–17:00: Olentzero, plazan. Kalejira, dantza, musika... Udalak, Zorritzketan euskara elkarteak eta Kurutzetako dantza taldeak antolatua.

Urtarrilaren 3an eta 4an, astelehenean eta martitzenean

–11:30-13:30 eta 16:30-20:30: Gabonetako umeen parkea, pilota-lekuan.

Urtarrilaren 21era arte

–Gabonetako postalen lehiaketako sariak ikusgai, liburutegian.

Loiu

Abenduaren 23an, eguenean

–18:00-19:30: VII. Azoka txikia, liburutegiko aterpean.

Abenduaren 24an, barikuan

–11:00-13:00: Ludoteka

–17:00: Olentzero, Klaratarren komentutik pilotalekura.

Abenduaren 27an, astelehenean

–11:00-13:00: Ludoteka.

–17:00: “Loiuko Udala” Gabonetako postalen lehiaketa, liburutegian.

–19:00: Postalen lehiaketako sariak banatzea.

Abenduaren 28an, martitzenean

–11:00-13:00: Ludoteka.



–18:30: Pepa eta Kutxo pailazoak, ludotekan.

Abenduaren 29an, eguaztenean

–11:00-13:00: Ludoteka.

–18:30: Kontu kontalaria.

Abenduaren 30ean, eguenean

–Goizean: Gabonetako Umeen Parke-ira irteera.

Abenduaren 31n, barikuan

–11:00-13:00: Ludoteka.

Urtarrilaren 3an, astelehenean

–11:00-13:00: Ludoteka.

Urtarrilaren 4an, martitzenean

–11:00-13:00 eta 16:30-19:30: Gabonetako Umeen Parkea, pilotalekuan.

Urtarrilaren 5ean, eguaztenean

–11:00-13:00: Ludoteka.

Urtarrilaren 7an, barikuan

–11:00-13:00: Ludoteka.



Abenduaren 26an 12:00etan San Isidro elizaren
aurrean hasita, Derioko kaleetan zehar...



**LAINOMENDI^{REN}
GABONETAKO
ERROMERIA
IBILTARIA**



Derio
Derioko Udala

maitatu, ikasi, ari...
euskalekari

17. ^{aek}**korrika**

TREBIÑU-DONOSTIA
2011ko apirilaren 7tik 17ra

**Urte euskaldun on!
Txorierriko AEK**

www.korrika.org

aek

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

**Urte
zoriontsu
eta
euskalduna
opa dizue**

arrekikili
Larrabetzuko euskara elkarteak

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARTZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARITXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

KIMO
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gatikorra 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

**POLITENA
TABERNA**

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07

Derio

Abenduaren 24an, barikuan

–10:00: Familia osoentzako jarduerak eta kirol jolasak, kiroldegian.
–10:00: 3x3 jaurtiketa libre, kiroldegian.
Derio Saskibaloia taldeak antolatua.
–10:00: Xakearen Tokiko Opena, kiroldegian. Xake taldeak antolatua.
–11:00: "Ezagutu esku pilota. Kirol jolasak" ekimena, pilotalekuan. Atxiki pilota taldeak antolatua.
–17:00: Olentzero, Errekalde parkean. Tximintx euskara elkartearen eta Ipar-Alde abesbatzaren eskutik.

Abenduaren 26an, domekan

–12:00: Erromeria ibiltaria, eliza aurrean. Lainomendi dantza taldearen eskutik.

Abenduaren 28an, martitzenean

–18:00: Nagusien jaia eta 1925eko kintoen omenaldia, kiroldegian.

Abenduaren 30ean, eguenean

–9:00-13:30 eta 16:00-19:00: Txu-txu tren, puzgarriak, ohe elastikoak eta kart zirkuitua, pilotalekuan. Danerik paraje! elkarteak antolatua.
–19:00: Hiruko areto-futbola, kiroldegian. Pozgarri taldeak antolatua.

Abenduaren 31n, barikuan

–10:00: Familia osoarentzako jarduerak eta kirol jolasak, kiroldegian.
–10:00: Aldi Bereko Xakea, kiroldegian. Xake taldeak antolatua.
–11:00: "Ezagutu esku pilota. Kirol jolasak" ekimena, pilotalekuan. Atxiki pilota taldeak antolatua.



Abenduaren 31ra arte

–Erakusleihoen V. Txapelketa, Danerik paraje! elkartearen eskutik.

Urtarrilaren 3an eta 4an, astelehenean eta martitzenean

–11:30-14:00 eta 16:30-20:30: Umeen jaia, kiroldegian eta pilotalekuan. Puzgarriak, tailerrak, mago baten emanaldia eta berbena.

Urtarrilaren 3tik 7ra

–16:00-19:00 (astelehena eta eguaztena); 11:00-14:00 eta 16:00-19:00 (martitzena eta barikua): Planetario ibiltaria, pilotalekuan. La Caixa fundazioaren eskutik.

Urtarrilaren 5ean, eguaztenean

–18:00: Errege Magoen desfilea, elizan.
–19:30: "Txori Herri" XXV. Gabon-kanten festibala, elizan. Ipar-Alde abesbatzak antolatua.

Urtarrilaren 6an, eguenean

–12:30: "Txori Herri" XXV. Gabon-kanten

festibala, elizan. Ipar-Alde abesbatzak antolatua.

Urtarrilaren 7an, barikuan

–19:30: The Upper Room gospel taldea, Gurea Aretoan. Sarrerak: hiru euro, informazio bulegoan.

Urtarrilaren 8an, zapatuan

–10:00: Eskolako areto-futbola eta F7, futbol-zelaian. Arteaga taldeak antolatua.

Urtarrilaren 14an, barikuan

–20:30: Erakusleihoen V. Txapelketako sariak banatzea, Larrabarri baserrian. Danerik paraje! elkartearen eskutik.

Urtarrilaren 15ean eta 16an, zapatuan eta domekan

–19:00: *Maribel y la extraña familia* antzezlan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilaren 22ra arte

–Janari batzea, Saharara bidaltzeko. Eroski eta BM supermerkatuetan.

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolin jokatzea, etorri zaitez Trippyra, Deriora.

Behoko Kalea 34
DERIO

Jantetxea **SAN ISIDRO**

ESKOLAKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERAKO GAZTOKIEN ZENTROA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukalderitza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 58
Fax 94 454 14 12

Mungaiako etorbidea, 25
48160 DERIO

t o k t a k

EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etatik 15:30ra arte
20:00etatik 23:30ra arte

Etanera eramateko zerbitzua: 1 €

Bostorrene 5, Beheka 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?

ETXEBIZITZETARAKO IGOGAILUAK
ESKAILERA IGOGAILUAK
PLATAFORMAK

Arazoei agur...

ARLAN
IGOGAILUAK
ASCENSORES

902 54 08 54 www.arlan.biz

INGELES
(Gaztelumendi, 1 - Larrabetzu)

FRANTSESA
Txinera

EUSKARA
Gaztelania

ESKOLA LAGUNTZA
(Gaztelumendi, 1 - Larrabetzu)

ENPRESENTZAKO IKASTAROK
MAILA GUZTIAN
ORDUTEO MALGUAK



IKASGELA AKADEMIA

Alta Patxi Ugalde, 12 - 48195 Larrabetzu Tel: 615 70 73 61 ikasgela@hotmail.com



ARE TXA BALA

LARRABETZU BIZIRIB

ETXEEN GURA DOGUZ GABONETAN

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64



OKINDEGIA - GOZOTEGIA

T'XISPAMENDI

Gaztelumendi, 1 - Larrabetzu (Bizkaia) - 94 455 89 35

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

Urte barri on!



kukubiltxo

kukubiltxo.com
E.posta: kukubiltxo@kukubiltxo.com



Aliprox

Ondo pasa jaietan!

INES JANARI-DENDA

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33



TOLDOS TXORIERRI

TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

MARIA LUISA TABERNA



Eguneroko menua
Asteburueta menu bereziak

Arebale, 5 - behe | Tel.: 94 455 84 14 | Larrabetzu

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK eta GAUEZ

MUSIKA ETA PARRANDA

Etxean gura doguz Gabonetan!

LARRABETZU
Tel: 94 455 84 77



Moro's Pub

Euskerea, ozenki Lezaman



Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoen txikienei gozarazo eutseen. Algarak belarrietan doguz oraindino.

Herriko txoko guztietan altu eta argi entzun zalako. Algarea handia izan zan; eta jaia, askoz handiagoa. Euskerearen Egunak txorierritarrok Lezaman batu gaitu aurton. Egunari antzerkiagaz eta jolasakaz emon geuntsan hasierea, eta bertso-lariakaz eta musikeagaz amaitu genduan. Adin eta gura guztiei zuzendutako ekitaldiak euki genduzan azaroaren 27an. Herri ikastetxeko umeek hurrengo astean hartu eben txandea. Horrezaz gainera, gainontzeko herrietan be ekitaldi sorta zabala antolatu eben alkarteek, euskaltegiek, ikastetxeek, liburutegiek eta erakundeek. Halanda be, ezin dogu ahaztu Euskerearen Eguna abenduaren 3an eta data horren inguruko egunetan ospatzen dogun arren, urteko gainontzeko egunetan be, lehen aitatutakoek zein lagun anonimoek ahalegin handia egiten dabela euskerearen alde. Eta arestian egin dana gogoan izateko, hor doaz aurtengo ekitaldien argazkiak.



"Mementu ridiccoliak" bizi izan ebezan herri eskoletako ikasleek; eta barrez lehertu beharrean egon be bai.



Ahotsa galdu genduan Taberna Ibiltaria taldekoakaz; tabernaz taberna, txokoz txoko, euskerearen doina be entzungai.



Txan magoak aho bete hortz itxi zituen 10 urtetik 11 urtera bitarteko umeak eta horien irakasleak.



Fantasiara joan ginan Peli, Txirrikiz eta Kukubiltxoren eskutik.



Goian, Egañak, Colinak, Lekuek eta Uriak bertso-saio ederra eskaini euskuen. Hotza ederra egoan, baina frontoia bete zan.
Ezkerraldean, indarrak neurtu genduzan soka-tiran, bolo-jokoan eta beste. Hitzapasa jolasean be ausartu ginan, halanda be dana asmaten eban lagun bat baegoan...

Derio

LAS CRONICAS DE NARNIA
La travesía del viajero del Alba
Igandea 2: 17:00etan eta 18:30ean PG
Astelohena 3: 18:00etan

"THE UPPER ROOM" - Gosspeil Kontzertua
Ostirala 7: 20:30ean Prezioa 3 euro
Sarrerak saiala etxebizitza eta hiritarrentzako informazioa bulegoan

MEGAMIND
Larunbata 8: 18:00etan
Igandea 9: 17:00etan PG

SUTONDOAN ANTZERKIA
"Maribel y la extraña familia" (Miguel Mihura)
Larunbata 15 eta Igandea 16: 18:00etan

URTARRILA - EGITARAUA

GURE ARETOA

GA'HOOLE - LA LEYENDA DE LOS GUARDIANES
PG
Larunbata 22: 18:00etan
Igandea 23: 17:00etan

ENTRELOBOS
Larunbata 22: 20:30etan
Igandea 23: 18:30etan PG

HITZALDIA
"Sustrai zaharrak kulturgintza berrian"
Antolatzailea: Txorierriko udal euskaltegia. Sarrera doan
Osteguna 27: 18:30etan

3 METROS SOBRE EL CIELO
Larunbata 8: 20:30etan
Igandea 9: 18:30etan 12

TRON LEGACY
Larunbata 28: 18:00etan
Igandea 30: 17:00etan PG

BURLESQUE
Larunbata 29: 20:30etan
Igandea 30: 18:30etan PG

GURE ARETOA

ENTRELOBOS

TRON LEGACY

BURLESQUE

EUSKO
www.euskosound.es

GURE ARETOA
Lainomendi kalea, 2 - www.derioakudata.net

DERIO
Koprite
Tel. 945 41 41 41
koprite@derioakudata.net

“Parte-hartutea gehiago bultzatu beharko z inguruko ekitaldiak folklore hutsean gerat



ZORRIZKETAN LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

Iñaki Lekerika Zorrizketan Lezamako euskera alkartearen presidentea da; eta Fernando Olabarrieta, alkartearen sortzaileetarikoa. Azaldu deuskuen moduan, 11 zenbakiak badau esangura sinboliko bat euskaldunontzat, eta zenbaki horren inguruan hain zuzen be antolatu dabe alkartearen urteurrena. Hamaika urtean egindako beharra eta euske-rea euki doguz berbabide.

TURREGOITI
JATETXEA
Laurietza etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

elekma
URDUTZAREN BAT GUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOKIAK
Lehenengo mailak • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txarri etorbidea, 25-374 • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.
Horma-Armairuetan eta Erreformatan Espezialistak
Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209
www.altzari.com
altzari@altzari.com
Luisine, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

an, euskerearen u ez daitezana



**Joan zan mendean jaio, eta mende
barrian emon ditu Zorritzketanek lehe-
nengo pausuak...**

Aspalditxoan hasi ginan herrian euskerearen aldeko gauzak egiten. Hasiera-hasieran kultur aretoan batuten zan euskaltzale talde bat ginan, ekitaldi xumeak antolatuten zituana. Geroago ofizialdu ginan, eta, lokal txiki horretatik herriaren eta ibarraren zabaltasunera joan ginan lelo honegaz: "bata-besteagaz lezamarrok euskeraz". Kontseiluak handik lasterrera antolatu eban "Bai Euskarari" kanpainaren olatuaren indarrak bultzada handia emon euskun bai guri, bai Txorierrin sortu ziran gainontzeko euskera alkartei. Joanak joan, etorriak etorri, hamaika urte bete doguz aurton. Asko dira? Gitxi? Nor da kapaz itaun honi zuzen erantzuteko? Ospakizunak poztasunerako guneak izaten dira, atzerantz begiratu eta ondo eginekoagaitik harro sentiduten garalako, edota txarto eginetatik ikasi egiten dogulako. Eta batez be aurrera begiratu eta indar barriak hartuten diralako. Asmo eta helburu honeekaz ospatu dogu guk gurea.

"Bata-besteagaz lezamarrok euskeraz", zer dago lelo horren atzean?

Taldearen ibilbidearen hasieran, sari-keta antzeko bat antolatu genduan herri-tarren artean, gure leloa aukeratzeko asmotan. Eta beste hainbat esaldi polit askoren artean, hori aukeratu genduan. Leloak argiak eta ulerterrazak izan behar dira eta gurearen esangurea nahiko argi dago: lezamarron artean, batez be daki-

gunon artean, euskerea ahalik eta gehien erabiltea; azken batean, euskeraz bizi ahal izatea. Zorritzketan alkarteak Lezaman euskerearen normalizazioaren eragilea izatea dau helburu; herriko esparru guztietan euskerea hizkuntza erabilia izan daitela lortzea.

Eta erantzukizun aktiboa doze behar horretan.

Ekitaldi gehienak herriari begira antolatuten doguz, Txorierriko beste taldeak batera egiten doguzanetatik aparte. Ekitaldi xumeak izaten dira, betiere euskerearen erabilera sustatzeko, eta taldearen presentzia eta prestigioa herrian areagotzeko. Batzuk ekintza ziklikoak dira: Gabonetako eguna girotuteko gaztainak, San Joan gaua, Goitioztako jaietako txakolinaren dastatzea, Andramarietako bazkaria...; eta beste batzuk, puntualak: hitzaldiak, argitalpenak, kontzertuak... Normalean nagusiei zuzendutako ekin-

*"Ospakizunak
poztasunerako guneak
izaten dira, ondo
eginekoagaitik harro
sentiduten garalako
eta indar barriak
hartuten diralako"*

"Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik."

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com

*“Herriko arlo
guztietan euskerea
hizkuntza erabilia
izan daitela lortutea
dogu helburu”*

*“Mikel Zarateren
euskaltzaletasuna
gurako geunke
lezamarrei nahastetea...
Ez da erraza izango”*

*“Oraindino be Lezaman
euskeraz bizi gura
dauanak zailtasunak
eta oztopo handiak
ditu... Negargarria”*



egon da hor, Zorritzetan sortu baino askoz be lehenago. Guk bere irudia, bere euskaltzaletasuna, bere handitasuna zelanbait “aprobetxau” gura izan dogu, Lezaman eta inguruan euskerearen alde zer edo zer egiteko, eta bide batez berari zor geuntsana eskaini. Hortik etorri zan bere heriotzearen 25. urteurrenean omenaldi handi bat antolatutea. Harrotasunez esan behar dogu, jente askoren beharrari eta lezamarren erantzunari eta bere familieren eskuzabaltasunari esker, herriaren historian egin dan kultur ekitaldirik handiena izan dala.

Izan be, hiru hilebeteen hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu ziran Leza-

tzak dira, baina umeentzat be zer edo zer egiten ahalegindu gara, eskoleagaz edota gurasoen alarteagaz batera. Eta gazteen-tzat, zer? Ba ahalegindu, ahalegindu gara, kontzertu edo halakoren bat inoiz antolatuz, baina oso gatxa da eurengana heldutea, gure aspaldiko erronketariko bat da, duda barik.

Herritarrek be badabe erantzun aktiborik?

Egiten doguzan ekitaldi batzuk, behintzat, nahiko errotuta dagoz herrian, eta gehiago edo gutxiago, jentea hurreratu da ekintzetara eta gustura sentiduten da. Duda barik, Zorritzetanen presentziak badau zelanbait eragin positiboa euskerearen erabilerean, baina ekintzotatik harago edo Zorritzetan aurrean ez dagoanean, ez dakit zer esan... Helburua benetan beteten dan edo ez, hori beste kontu bat da, azterketa sakonago bat egin beharko litzateke.

Ekitaldi ludiko horreetaz aparte, beste behar sakonago batzuk be egin dozuez, Mikel Zarateren heriotzearen 25. urteurrenaren haritik antolatutako ekintzak, esate baterako.

Mikel Zarate idazle lezamarra, zoritxarrez oso gazterik joan jakun arren, beti



Unitzaga Itzasa Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa



Umecko Q
kulturrekuntzaren erakunde saria
lortzen duen LHko
Biziako lehenengo ikastetxea

Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri

ATE IREKIEK JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinua fabrikazio mekanikoa (2.000 ordu)
- Diseinua fabrikazio mekanikoa (Goi maila (2.000 ordu))
- Produktzioaren programazioa (Goi maila (2.000 ordu))

KIMIKA

- Ingurumen-kimika (Goi maila (1.400 ordu))

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak (Goi maila (2.000 ordu))
- Telekomunikazio eta informetika sistemak (Goi maila (2.000 ordu))

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa (Goi maila (1.400 ordu))

Batzillergo tekniko eta zientifikoa



man eta Txorierriko beste herri guztietan be bai.

Berbaldiak, erakusketak, kontzertuak, Euskaltzaindiaren batzarra eta adierazpena, liburuen eta diskoen argitalpenak, dokumentalak, herri bazkaria... Grabauta geratu ziran ekitaldi guztiak gure begi-belarrietan eta baita euskarri digitalean be. Eta hor geratu dira betiko *Gure Mikel* liburua, Juan Luis Goikoetxeak zuzendutako biografia antzeko bat, edo Labayruko Asier Bidart eta Aintzane Etxebarriak burututako *Lezamako Toponimia*, edo Iñaki Gamindek atondu zuen *Lezama barbarik berba* lana, edo Gaizka Peñafiel musikari gaztearen *Mikel Zarate* diskoa, edo Mikel beraren inoiz argitaratu bako *Utopiaren fantasiaz* poesia liburua, edo Susa argitaletxearen eskutik bere lan osoak sareratu tea eta danon esku itxitea...

Barru-barruan daroazuen euskaltzale, idazle, persona, laguna... da Mikel.

Eredu eta ejenplua da euskerearen arloan, bai gure taldearentzat, bai beste euskera talde askorentzat be bai. Eta bide horretatik, Mikelen eredia eta beharrak



zabalduz gurako geunke bere euskaltzaletasuna lezamarrei nahastetea... Ez da erraza izango.

Hain txarra da euskerearen egoerea Lezaman, ala?

Dana ez da baltza, leku edo inguruneetatik inguruneetara desbardintasun handiak direlako. Baina euskerearen erabile-

rea Lezaman oraindino eskasa da, oso eskasa, negargarria. Ez geunke katastrofista agertu gura, baina gauza asko egin dan arren, hobetu dogun arren, erderea da nagusi tabernetan eta dendetan, udalletxean, medikuaren kontsultan, ume eta gazteen artean, Athletic-en instalazioetan, enpresetan, pelotalekuan, txokoetan,



Sutxu bidea, 4 • 48180 LOIU • Tel: 94 453 04 51 • Faxe: 94 453 25 07 • loiumat@loiumat.com • www.loiumat.com



jaietan, alkarreetan.... Baina hori baino baltzago ikusten dogun gauza bat be bada: oraindino be, XXI. mendean, Lezaman euskeraz bizi gura dauanak zailtasunak eta oztopo handiak dituala... Negargarria.

Euskerearen Eguna Lezaman ospatu dogu aurton. Zertarako balio dabe halako jaiek?

Euskerearen alde benetan egiten dan edozein ekitaldi beti izango da onuragarri eta aprobetxagarri. Euskerearen Nazinoarteko Egunaren inguruan horrelakoak eta beste asko antolatuten dira, eta modu positiboan ikusi behar dira. Dagoan arriskua ekitaldiok folklore hutsean geratutea da, arduradunen kontzientzia zurituteko prestatuten ei diralako. Txorierriko kasuan, egun hori antolatutearen alde izan gara beti gure taldean. Egin gurako gendukeen kritika bakarra (eta konstruktiboa) da herrietako alkarteen parte hartutea gehiago bultzatu behar dala. Osterantzean, "goitik" eginda datorren gauzea geratuten da, interesgarria eta aprobetxagarria izan daitekena, jakina, baina bere arriskuak be badituena.

Oso harreman estua dozue Txorierriko gainontzeko euskera alkarreakaz, ezinbestekoa da lankidetzeara?

Bai, eta horren alde jokatu dogu beti. Alkarte bakotzak indar gehienak bere herrian erabili behar baditu be, ez gara isolatuta bizi eta ondokoen lagunengana be jo behar da, emoten eta hartuten. Horren lekuko dira Aikor! aldizkaria, Berbalagun proiektua, batera antolatuten

diran ekitaldiak, Baserri Antzokia proiektua...

"Hemendik kultura saria" jaso dozue oraintsu, urteurrena biribildu dau?

Sariak zigorrak baino hobeak eta eraginkorragoak dira beti. Baina, beharbada, beste alkarte batzuk be badagoz saria merezi dabenak. Sari batek ez dau ibilbi-

"Sariak esan gura dau norbaitek guregan zerbait positiboa ikusi dauala, pozgarria eta eskargarria da"

de oso bat adierazoten, eta batzuetan hori emoten dauanaren ikuspuntua ispi-latuten dau. Kontuan hartutekoa da, bai, baina gauza puntuala be bada... Edozein kasutan, sariak esan gura dau norbaitek guregan zerbait (gitxi edo asko) positiboa ikusi dauala, eta hori beti da pozgarria eta eskargarria.

Batzuek kuriosidadea eukiko dabe, zer esan gura dau Zorritzketan berbeak?

Lezamarrok "zorritztoak" edo "zorriak" gara ezizenez. Eta ezizenaren alde ludi-koa eta soziala erabiliz, taldekide batek "Zorritzketan" berba barria asmau eban, "zorriak euskeraz berbetan" adierazo gura dauana.

"Ibilbide laburra eta oparoa"



Poztasunez eta harrotasunez ospatu dabe Zorritzketaneko kideek alkarteen 11. urteurrena. Pirritx eta Porrotx pailazoen emonaldia, gazteei zuzendutako kontzertuak, bertso-afaria, kultura astea, berbaldiak, herri bazkari berezia... ekintza sorta zabala eskaini deutsee urte osoan zehar lezamarrei eta txorierritarrei. Urteurren bat lagunen artean ospatu behar dan jaia dala-

ko. Baina urteurrenak begirada atzera botateko gunea be bada, eta alkarreak halan egin dau. "Gatxa da 11 urteren ibilbidea lerro bitan azaldutea. Laburra eta oparoa izan dala esango geunke; akatsez beterikoa beharbada, baina ilusinoz gainezkakoa be bai. Alkarteen marka herrian ixteko modukoa bai, behintzat". Aitatu deuskuen moduan, barrura begira hausnarketa sakona egiteko momentua be bada, "ondo edo txarto zer egin dogun jakiteko". Horrela, bada, inkesta bat egiteko asmoa dabe, eta hori herritarrei zabalduko deutsee, "zelan ikusten gaituen eta gutaz zer pentsetan eta itxaroten daben ezagututeko". Inkestak eta alkarteen geroko eztabaidak eta gogoetak markauko deutsee aurreranzko bidea. Bitartean, euskerearen normalizazioaren eta euskal kulturearen alde jarraituko dabe beharrean.

Opariak banatu ditugu Aikorlagunen artean eta saridunak zerrendan dituzue

Hurrengoa zeu!

- ▶ **Athletic-Racing (2011/01/16)**
futbol partidarako sarrera bi (Itzariren eskutik):
MARI MAR MELLADO
- ▶ **Bizkaia Bilbao Basket-Cajasol (2011/01/16)**
saskibalo partidarako sarrera bi
(Bizkaiko Saskibalo Federazioaren eskutik):
JOSU REGIDOR
- ▶ **Ken Zazpi** taldearen kontzerturako sarrera bi
(Topagunearen eskutik):
BERTOKO SOINU TRESNEN ELKARTEA
- ▶ **Afaria Azak Bilboko jatetxean**
(bi lagunentzat):
AITZIBER ZABALA
- ▶ **Txorierriko txakolina:**
GARBIÑE ORUETXEBARRIA
- ▶ Gotzon Barandiaranen **Errotik liburua:**
GABRIEL ETXEBARRIA
- ▶ Juan Luis Goikoetxearen
Euskaldunaren anekdotak I eta II liburuak:
ITXASO ZARATE
- ▶ Xabier Aburruzagaren
Denboraren naufrago diskoa:
JOSE MARIA ETXEANDIA
- ▶ Lagatzu Zamudioko euskara elkartearen sorta
(liburua, CD-a, kamiseta eta katilua):
MATSA LANDA HOTELA
YOLANDA UGARTE
- ▶ Tximintx Derioko euskara elkartearen sorta
(liburua, CD-a eta kamiseta):
DAÑOBEITIA JANARI-DENDA
ETOR IRAZOLA
- ▶ Zorritzketan Lezamako euskara elkartearen sorta
(liburuak, CD-a eta kamiseta):
AITOR LARRAZABAL
JOSE ANGEL GONZÁLEZ
- ▶ Sabin Aranaren **Urkulu liburua**, (Arrekikili
Larrabetzuko euskara elkartearen eskutik)
IGOR ROLA
- ▶ **Zoo zoroa eta Armix kart bideo-jokoak**
(Elhuyar Fundazioaren eskutik):
DERIOKO ESKOLA
ALBERTO OLABARRIETA
TEODORO APRAIZ
IGOR URRUTIKOETXEA
- ▶ **Itaunka? mahai-jokoa:**
(AEK-ren eskutik)
MARIA ROSARIO MARTIN
TXERRA RODRÍGUEZ
AITOR COTERON

Egin zaitez

aikor!

lagun

Zelan?

Txorierriko euskara elkartearen bidez
Telefonoz: 94 452 34 47
e-mailez: aikortxori@aikor.com
www.aikor.com webgunean





t/a: Gaizka Eguskiza

Lagina Goikoa baserria Larrabetzun dago. Hara joateko aldapa itzela gaintitu behar da, baina hortik ikusten den paisaiak merezi du: handik Txorierri osoa dago bistara. Baserri horretan Horma-ondo erretegia dugu, eta bertan jaten ematen dutenak ere merezi du. Izan ere, "Matías Gorrotxategi" saria eman diote Estatuko erretegirik onena izateagatik. Mikel Bustinza eta Jayne Hardcastle senar-emazteek zuzentzen dute jatetxea eta ez zuten "inondik inora" saria espero. "Gure parrillak ospea izan du beti, baina ustekabe galanta hartu genuen saria jaso genuenean, baita kristoren poza ere".

2007ko otsailaren 16an ireki zuten Larrabetzuko jatetxea, baina beste Horma-ondo bat ere bazuten Zornotzan, Bernagoitia auzoan. Oso pozik bizi eta lan egiten zuten bertan, baina lekua txiki gel-

Horma-ondo: "Produktuen kalitatea eta maitasuna dira gure gakoak"

ditu zitzairen. "Ez zegoen autoak aparkatzeko lekurik, eta jantokia ere ez zen oso handia". Horregatik, "etorkizuna bermatzeagatik", Larrabetzura joan ziren eta hor aukera itzela topatu zuten. "Lekua zoragarria da. Jatetxetik mendiak eta inguru osoa ditugu ikusgai". Ripa Bilboko erretegia ere bada euren, eta Aspe Goikoa Dimako jatetxearen bazkideak ere badira.

Jatetxea erabat familiarra da: ama eta Jon sukaldean dabilta, eta beste anaia eta aita, platerak zerbitzatzen. "Sariak garrantzia du guk urteetan egin dugun lana aintzat hartu duelako eta ospea ekarriko

Sukalde

Euskal Herriko sukaldaritza ezaguna da mundu mailan, eta Larrabetzun egundoko adibide bi ditugu: Horma-ondo erretegia eta Azurmendi jatetxea. Lehenengoa Estatuko erretegirik onena izendatu dute; bigarrenak bigarren Michelin izarra lortu du. Aikor! aldizkaria bien sukaldeetan egon da eta euren usain eta zaporeak ekarri dizkizue.

digulako. Hala ere, guretzat saririk onena bezeroa bera da, hau da, bera hemendik pozik ateratzea. Eta gure ustez, normalean lortzen dugu aspaldiko bezeroak ditugulako eta gainera euren seme-alabak ere etortzen direlako", dio Jaynek.

Eta zein da gakoa? "Kalitatea, maitasuna eta, azken batean, egiten duguna gustatzen zaigula", erantzun digute. Baten batek pentsa lezake jakiak parrillan erreteza erraza dela, baina hori ez da egia. "Okela eta arrain bakoitza ezberdina da: lodierak, neurriak edo urteko sasoiak zerkusia dute parrillan egiteko orduan. Horregatik, bada, gure lana ez da monotona". Horma-ondo jatetxean denetarik egiten dute parrillan: lehen platerak, arrainak, haragia eta postreak. "Esate baterako, anana txingarretan erretzen dugu. Horri almibarra, jogurta eta izozkia gaineratzen dizkiogu. Eta beste batzuk ere egin ditugu: adibidez, batzuetan marrubiak e-

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis M^o Asensio
Osteopata

hernia - zaitza - akromiok - lumbago - telemta - aratoak
traumatismoak - bertsoak - zoroak - buruko minak - iburuetarako arazoak
perio-osteoartikulak (arazoak aurpegi eta indurren) - prestatu

Larrabetzi, 1. lortza - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 69
emaila: osteopatiolasai@euskalnet.net

Mascolas Maider

**Koopainako animaliak,
Tia kurrun jle-apaindegia,
Osagarriak
Elikadura**

Plangaldea eta Gernikako urtearen txakurak, 48160 Derio - T. 94 454 21 80

On egin kafetegia

Hamburgerak - otartekoak - sartenekoak
plater konbinatuak - gosariak 7etatik aurrera
pastelak enkarguz

etxera eramateko zerbitzua

Aretxalde bidea, 48-behu
48194 Lazana

94 455 63 94

bikainak

do gereziak erabili ditugu. Edozein gauza erre daiteke parrillan eta goxo-goxoa da”.

Bigarren izarra, lapikora

Legina Goikoa baserria utzi eta aldan behera goaz. Bidean Azurmendi jatetxea topatzen dugu. Eneko Atxaren jatetxeari beste Michelin izar bat eman diote, bigarrena jatetxea duela 5 urte ireki zenetik. “Gure lan taldeak gogor egin du behar azken bost urte hauetan, eta esker ona jaso dugu. Eta gainera esker on itzela, Michelin izarrak nazioarte mailan jatetxe batek lortu ahal duen saririk handienak baitira. Oso polita izan zen izar bat jasotzea eta askoz politagoa bigarrena ere lortu izana”, esan du sukaldariak.

Esker onak jasotzea garrantzitsua da, noski, baina hori ez da Enekoren taldearen lan egiteko arrazoiak. “Ez dugu sarietan gehiegi pentsatzen. Izar gehien duen jatetxea baino, jendea gurera etorri eta hemendik pozik ateratzen den jatetxea izatea nahiago dugu. Eta ahalik eta ondoren jarraituko dugu lanean hori lortzeko, bezeroen zoriona lortzeko”. Bezeroak dira jatetxearen funtsa, eta horregatik “eurekin” ospatuko dituzte izarrak. “Bost urte hauetan bezeroek izugarri lagundu digute, eta eurei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea da gure erronka nagusia”.

Azurmendi jatetxean euskal sukaldaritza berria eskaintzen dute, batez ere. Eneko ez du betiko sukaldaritza eta sukaldaritza berriaren arteko etengabeko eztabaida horretan parte hartu nahi. “Nik ez dut inor konbentzitu nahi. Niri biak gustatzen zaizkit, biak onak iruditzen zaizkidalako; egunaren arabera, egun baten bata nahiago dut eta hurrengoan, bestea. Nik biak dastatzeko gonbita egingo nuke. Azurmendin errespetuz jokatzeko dugu gure produktu eta betiko errezetekin. Zaporeak erraz bereizten dira hemen”.

Eta zapore horien artean Bizkaikoak nabarmendu nahi dituzte Azurmendin. “Gure lurraldea bereizi behar da gastronomia mailan. Azurmendi jatetxean gurera etortzen direnei Larrabetzuko, Txorierriko eta Bizkaiko zatitxoak ematen diegu ezagutzera. Gure zaporeak gure baserritarrek, abeltzainek eta arrantzaleek ematen dizkiguten produktuenak dira. Gure sukaldaritza herentzia da hori, eta hori bezeroei helarazi nahi diegu”.

*Azurmendi:
“Izar gehien duena baino,
jendea gurera etorri eta
hemendik pozik
ateratzen den jatetxea
izatea nahiago dugu”*



ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

 **Inmobiliaria**
ETORKI
Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 **48160 DERIO**

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabia
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

 **KAFETEGIA**
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 34 29 56

Carnicería
Charcutería
IMAZ
MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

LEJARRENE JATETXEA
Garailetxa auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Oroitzapenetan sakonduz

Loiuko joan dan mendeko historia argazki-bilduma baten jaso da. Datorren urterako dokumental bat kaleratuko da

t: Itxaso Marina

Jesus Sustatzak eta Luis Gómezek orain dala urte eta erdi ekin eutsien beharri. Loiuk bilakaera izugarria euki dau azken hamarkadetan, eta loiuztarrek ahalgina egin dabe aldaketa hori argazkien bidez jasotzeko. Etxez etxe ibili dira, auzoz auzo eta baserriz baserri, herritarrei tirador-hondoan ebezan antxinako argazkiak berreskuratzeko eskatzen. Gutira 500 argazki batu dabez, eta horreetako 300 ikusgai jarri zituen Landatxueta jatetxean. Izan be, eskola zaharretako ikasle ohiek bazkaria antolatzen dabe urtero jatetxe horretan. Bazkaria 20. aldiz egin dabe aurtun eta aukerea aprobetxau dabe argazki-bildumea jente-aurrean aurkezteko. Jatetxean 200 lagun inguru bildu ziran, eta erretratuek hain ikusmin handia sortu eben, ezen gehienek bazkaria aurretik eskaini zan kopaua galdu eben argazkiak ikusteagaitik.

Erakusketa ez eze argazki-albuma be egin dabe Jesusek eta Luisek. Albumean egileen ustez esanguratsuenak diran 100 erretratu argitaratu dabez. Argazkiok



Loiuk berak eta bertakoek bizi izandako momenturik inportanteenak jasoten dabez kirol, gizarte, politika eta urigintzarloan. "Erretratuak batera horreen ganekeo aitamena be idatzi dogu. Halan,

argazkian agertzen diran lagunak nortzuk diran azaltzeaz ganera, argazkia zein urteetan aterata dagoan be aitatu dogu, zein lekutan, paraje horretan zer egoan lehen eta zer dagoan gaur egun... Argazki bakoitxari jagokona irakurriz gero, herria zer zan eta zer dan atera daikegu ondorio; hau da, gure historia eta ohiturak ezagutu".

Bildutako argazkirik zaharrenak joan dan mendearen hasierakoak dira, beraz, egindako lanak ederto adierazoten dau Loiuren bilakaerea. Jesus loiuztarra da jaiotzez eta Luis orain dala 40 urte joan zan hara bizitzen. Biek ondo baino hobeto ezagutzen dabe bilakaera hori. "Azken 45 urteetan euki dogun aldaketea oso handia izan da maila guztietan. Herri nekazaria izateari itxi deusagu eta gaur egun banaka batzuk dira baserrian behar egiten dabenak. Gizarte-harremanak be bestelakoak dira gaur egun. Herritarrok alkarri laguntzen geuntsan lehen, alkar ezagutzen genduan eta etxeko ateak beti egozan zabalik. Herritarrok herria egiten genduan: frontoian, plazan, eleizan, tabernan... Orain, barriz, giltzaz ixten dira


**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikastarok
Aisialdirako landak - Apolo zerbitzua
Salo - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA



**GOIKO
TABERNA** Taberna-jatetxea
Emiliano

Menue berriak astekarietan • Egurak menua eta karta
Etxeko ornatuko platerak • Juarvertzak eta ehonak
Itxakia astekarietan • Jantoki zabalak

R.º Gersolitzu, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Loiuk eta hangoek arlotu guztietan bizi izandako momenturik inportanteenak jaso dira argazkietan

ateak eta Loiurik bihurtu da". Urigintza arloari jagokonez be aldaketa garrantzitsuak egon dira. "Herria hau zen antxina: eleiza, udaletxea eta sakabanatuta egozan hainbat baserri. Baserri asko desagertu egin dira eta urigunea joan da atontzen udaletxe eta eleizaren inguruan".

Testigantzak eta ohiturak

Edozelan be, argazki-erakusketea zein albuma oso arrakastatsuak izan dira eta askok eskatu dabez erretratuen eta albumaren kopiak. Are gehiago, erakusketea herriko beste leku batzuetan be jarreko proposamena egin deutsee Jesusi eta Luisi, eta auzokideek oraindino jarraitzen dabe eurenengana jotzen, argazki gehiago ixteko.

Erretratuak batzen ibili diran bitartean, herriko ekintzarik inportanteenak bideoz grabatu be egin dabez: jaiak, Olenzeroa, inauteriak eta azokak, batzuk aita-tzearen. "Herriko historian gehiago sakontzeko asmoa dogu. Horretarako, dokumental bat atera gura dogu eta han herriaren testigantzak, Loiuko ohiturak, fiestak, bizitza... azaldu. Taloa egiteko erabiltzen dan urina zelaz egiten dan be grabatu egin dogu herrian lotzen dan errota bakarrean, baita ohiko txarribodea be". Era berean, Loiuren ganeko abestia konposatu dabe eta horri eleizako organistak jarriko deutso musikea. Ahotsa eleizako koruak eta herriko txikitero batzuk ipini-ko deusie, eta abestia dokumentalean sartuko da. Lana datorren urtean egongo da amaituta.



Bidean alkatu dan bikotea

Jesusek eta Luisen oso parte-hartze aktiboa euki dabe Loiuko bizitza sozial eta kulturean. Lehenengoa herriko alkatu guztietan ibilia da: dantza, futbol eta pelota taldeetan, jai-batzordean, nekazaritza-kooperatiba... Eta bigarrenak gazteei zuzendutako hainbat tailer jarri dau martxan. Urteerak be antolatu ditu eta aida zabaleko zinearen arduraduna izan da. Bakotzak bere kabuz egiten eban herriaren aldeko beharra. Baina egun baten alkarregaz topatu eta Loiuko historiarako eta sustraietarako zaletasunak betiko alkatu zituan. Aitatuak argazki-bilduma eta dokumentala grina horren emaitzak dira. Halanda be, gizon honek jakin-minak ez dau mugarik eta etorkizunean liburu bat argitaratzeko asmoa dabe-

la esan deuskue. "Sustraietan sakontu eta Loiuko joan dan mendeko historia batu gura dogu liburuan". Historia eta pasadizak be bai, herriaren ahoz aho helarazu diran hamai-ka kontakizun dagozalako. "Deriora porru-landaren bila joan eta kanpoan hiru egun emon zituan mutilarena, edo hil zala pentsauz lurperatua izan eta hurrengo egunean etxeko atea jo eban gizonarena, esate baterako".

Harro dagoz eta eskuartearen dabezan proiektuak ahalik eta jente gehienengana ailegetea gustauko litzakie. Beharra musu-truk egiten dabe, eta horren ordainetan jentearen esker ona jasoten dabe. Nahikoa, euren esanetan. "Herria maite behar da, baita bertokoak be".


J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tfn: 94 455 89 41
LARRABETZU

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

URAS
Estetika eta masajea
Aita Pab. Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Motoziklismorako grina

t: Itxaso Marina / a: Antolatzaileak



Sondika Moto ekitaldira 1.000 zale inguru batu ziren azaroan. Bertaratutakoek aukera izan zuten, besteak beste, euskal motoziklismoaren iragana eta oraina ezagutzeko eta BQR taldearen kamioi-trailerra bisitatzeko.

Motoziklismo zaleek hitzordu garrantzitsua izan zuten Sondikan azaroaren 20an eta 21ean. Gorondabeko kiroldegian 112 moto jarri ziren ikusgai. Gehienak partikularrek utzitako ibilgailuak izan ziren eta moto klasikoak, modernoak eta lehiaketakoak egon ziren haien artean. Balio ekonomiko eta historiko handiko motoak eraman ziren Sondikara. Horrela, bada, Lube Barakaldoko moto-fabrikako modelo guztiek euren lekua izan zuten erakusketan, eta munduan bakarrik diren moto modeloak ikusi ahal izan zituzten zaleek. Santi Herrero 1970an Man irlandan izan zuen istripuan gidatzen zuen motoaren erreplika ere jarri zen ikusgai kiroldegian, baita Aman Sabugok 1959an Bilbo-Málaga-Bilbo proba irabazi zuenean erabili zuen Lube markako motoa ere. Herri Torrontegi, Jose Ángel Mendivil eta Efrén Vázquez gidariek ere euren estanda ipini zuten: motoek, kaskoek, ekipamenduek eta argazkiek ikusmin handia eragin zuten ikusleen artean, eta oroitzapen gozoak etorri zitzaizkion bati baino gehiagori.

Abiadura ez ezik motoziklismoaren beste kategoria batzuk ere erakutsi ziren. Besteak beste, gidari hauen ibilgailuak jarri ziren ikusgai: Aitor Martínez, Euskadiko Supermotard txapelduna; Oihane

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Osasun-zentroa & Horte-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTUDONTSIA ESTETIKOA
HAZIDAKAREN BILDERNA

Dr. Arellano kalea, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Ordulagi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokortzen
Auzoaren kumintatzen
Mantentzen garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinpiko amateko garbitzen
Ikastetxeak
Zahar bilera

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

lurrindegia **MAMEN** mertzzeria

Golko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25



112 moto jarri ziren ikusgai; haien artean munduan bakarrak diren modeloak egon ziren

Albizuri, Euskadiko Motokros txapeladuna; Txomin Arana Espainiako eta Munduko Motokros Txapelketako parte-hartzailea; eta Borja Nieto Euskadiko Motokros txapeladuna gogor kategorian, banaka batzuk baino ez aipatzearren. "Ekimenaren helburua izan da herritarrei ezagutzera ematea zein diren euskal motoziklismoaren historia, pilotuak, haien lana eta maila", azaldu digu Unai Atxak, Sondika Moto jardunaldien antolatzaileetako batek.

Torrontegik, Mendivilek eta Vázquezek solasaldi bat egin zuten Kultura Etxean, eta aretoa leporaino bete zen. Oso ekitaldi atsegina izan zen eta pasadizoak eta anekdotak izan ziren nagusi.

Aurreikuspena gainditu

BQR taldeak munduko txapelketetan hartzen du parte Moto2 eta 125 cc kategorien barruan, eta talde horrek kamioi-trailer bat aparkatu zuen Sondikan. Zaleek kamioi-trailerra bisitatu zuten, gidari baten azalpenei arretaz jarraitzen zieten bitartean. Asteburu "motoari" amaiera emateko, Efrén Vázquezek autografoak sinatu zizkien harengana hurbildu ziren guztiei.

Sondika Moto ekimenak aurreikuspenak gainditu ditu eta horren seinale da herrira 1.000 lagun inguru hurbildu zirela. Oso ekimen arrakastatsua izan zen eta zaleak Txorierriatik ez ezik Bilbotik Ezkerral-detik, eta Burgosetik ere etorri ziren. Euri zaparrada handiak bota zituen asteburu osoan, baina eguraldi txarrak ez zituen zaleak kikildu, eta batzuk Sondikara motoz joatera animatu ziren.

Motoziklismoarekiko hitzordu hau urtebetez ibili dira prestatzen. "Herrian lagun asko gara motoziklismoari nola edo hala lotuta gaudenok, eta kirol honi me-rezi dituen lekua eta garrantzia ematea pentsatu genuen". Horretarako, hainbat eta hainbat pertsona ibili dira antolatze-lanetan, bai ekimenean bertan eta bai

aurreko hilabeteetan ere. "Udalera jo genuen eta laguntza eman ziguten. Mendivil, Torrontegi eta Efrénekin ere harremanetan jarri ginen eta berehala bat egin zuten gurekin. Gainera, Mendivilek ezinbesteko laguntza eman digu erakusketa osatzeko. Eskerrak eman nahi dizkiegu haiei guztiei, Racing Tolua taldeari eta Mendivilen enpresari. Eta, bereziki, antolakuntzan ibili diren lagun eta herritar guztiei". Jende askok galdetu die antolatzaleei ea Sondika Moto ekimenaren bigarren edizioa egingo ote den datorren urtean. "Oso pozik gaude emaitzarekin, harro, baina jarri eta ekimena bere osotasunean aztertu beharra dagoela uste dugu. Ikusi egingo da".

BASERRI ANTZOKIAREN PARTAIDE IZAN ZAITEZ!



TOTOANek, Txorierriko Mankomunitateak eta euskara elkarteek Baserri Antzokia aurkeztu dute herriz herri, eta proiektuak ikusmin handia sortu du herritarren artean. Baserri Antzokiaren fase berriari hasiera eman eta harpidetza kanpaina jarri dute martxan orain dela gutxi. Zu ere proiektuaren parte izan zaitezke. Horretarako, beheko formularioa bete eta **euskara elkarte**en egoitzetan edo zure **udaletxe**an utzi.

–634 401 580 telefono zenbakian (Alazne).

–alegarreta@baserriantzokia.com helbide elektronikoan.

Bazkidearen datuak

Izena: _____ PK: _____
 NAN: _____ Lurraldea: _____
 Helbidea: _____ Telefonoa: _____
 Herria: _____ Posta e-: _____

Ordaintzeko modua

Kontu korrontean helbideratzea
 Ent.: _____ Bulegoa: _____ K.D.: _____
 Kontua: _____
 Kontuaren titularrak: _____

Datu Pertsonalak Babesteko Legea 15/1999 Lege Organikoa konstituzioaren 18. artikulua, jakinarazten dizugu zure datuak fitxategi automatizatu batean sartu direla BASERRI ANTZOKIA FUNDAZIOAREN enstakizunaren pean, zurekin dugun harremanaren ondoriozko konpromisoari erantzun gisa. (Ez berran, jakinarazten dizugu idazki baten bidez erabili dezakezula, zure datuak sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezabatzeko edo datuak aurka egiteko eskubidea; herretan, hotsa jo behar duzu. Posta-kutxa: 66, 48160 DEIRO).

Aurkakortik adierazten ez badiguru, orduan ulertuko digu zure datuak ez direla aldatu, edozein aldatuta jakinarazteko konpromisoa hartzen dugula eta zure buaimena dugula alderdian arteko harremana sendotzeko erabiltzeko. Zure akostasuna ere eskatzen dizugu datuak beste enpresa bati ere jakinarazteko, baliok eta jakinarazte hori beharrezkoa bada kontratu hau betearazteko, edo alderdi biei arteko harremana hobetzeko eta bidezko.

Data: 20__ / __ / __

Sinadura:

t: Itxaso Marina / a: Jon Llona

**Zer lotura dauka Txernobil alkarte-
ak Txorierrigaz?**

Hemen lau harrera-familia gagoz: bat, Erandiogoikoan; beste bat, Loiun; beste bat, Lezaman; eta gu, Zamudion. Lezama-ko familiak ume bi ekarten ditu udan. Lehen baegoan beste familia bat Derion, baina ekarten eben gazteak 18 urte bete ditu eta gehiago ez da sartzen umeak etxean hartzeko programetan. Udan Ukrainan izan gara eta bertan ikusi genduan, igaz Euskal Herrira etorritako 261 umeez ganera, badirala beste 200 ume handik urteteko beharrezana daukienak. Harrera-familia gehiago behar doguz Euskal Herrian, Txorierrin!

Orain dala bost urte egin zan azken txostena, eta txosten horren arabera orduko erradiazio mailak ez ziran hain kezkagarriak...

Aurton neurketak egin doguz Txernobil, eta erradiazio maila hemen doguna baino bost bider handiagoa da. Beste herri batzuetan ez dago hainbeste, beharbada. Halanda be, ez da bardina han bost minutuan egotea edo bizitza osoa emon behar izatea, erradiazioa pilau egiten dalako. Erradiazioa lurrean sartzen da, eta Errusia aldean orain dala gitxi izandako suteen ondorioz barriro urten dau kanpora, eta kutsadura handia sortu. Umeentzat komenigarria da handik urtean bitan urtetea, eta hori gutxienez bost urtean egitea halan. Alde batetik, erradiazioagaitik, eta, bestetik, han dagoan pessimismoagaitik, autoestimurik ezagaitik...

Zeintzuk dira alkartearen jardunbideak?

Garapen-proiektuei jagokenez, Oraineko eskola bat birmoldatzeko laguntasuna emon dogu. Sentsibilizazio-kanpainak be egiten doguz. Aurtengoa "Bere ametsak har itzazu" da eta haren barruan egutegi bat eta Kukuxumusuk diseinutako kamiseta bat jarri doguz salgai. Egute-

"Umeak etxean hartzeko familiak behar doguz Txorierrin"

TXERNOBIL ALKARTEA

Txernobil alkarte 1996an sortu zan eta harrezkero 3.178 harrera bideratu ditu Euskal Herrian. Datorren urtean 25 urte beteko dira hondamendi nuklearra gertatu zanetik, eta alkarteak "Bere ametsak har itzazu" kanpaina jarri dau abian urteurrena dala-eta. Ana Otaola eta Jon Llona Zamudioko senar-emazteak umeak etxean hartzeaz ganera, boluntario dabilz alkartean.



gian euren lanbide-karreragaitik gailentzen diran emakumeek hartu dabe parte: Toti Martínez de Lezea idazlea, Eva Argiñano sukaldaria, Lucía Lacarra dantzaria eta Ángela Vilariño pilotua, adibidez. Helburua hau da: hango neskatoek ikustea badagozala beste aukera batzuk, eta lortu leikiela gura daben edozer.

Non erosi leitekez?

Egutegia Zamudion dago salgai, Marielirenean eta liburu-dendan. Beste herrietako dendaren bat prest balego egutegia bertan saltzeko, gustura eroango geunkezk aleak. Gure egoitzan (Bidarte Udaltegia, Agirre lehendakaria, 42) edo 670 419 078 telefono zenbakira deituta be lortu leitekez egutegiak eta kamisetak. Guk Ukrainako alkarte bigaz egiten dogu behar. Alkarte horreetako boluntarioak etxerik etxe ibiltzen dira eta familia eta ume bakotxaren egoera zein dan aztertzen dabe. Batzuetan, oinez joaten dira leku

 **MODA
INFANTIL**
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

 **Garmendia
ardoak**

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

 **GUEDAN**
servicios deportivos, s.a
Jesusen Bihotza plaza, 5 - Euzkalduna er. 7, 1. d. l. oia
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 26 - Faxa: 94 452 30 74



batetik bestera; beste batzuetan, auto-stoppe, bizikletaz... Bildutako dirua ibilgai-luak erosteko erabiliko da, ea posible dan!

Batez be umeak etxean hartzeko programari emoten deusazue garrantzirik handiena.

Programan sei urtetik 17ra bitarteko umeek eta gazteek hartzen dabe parte. Gu Ukrainaraino joaten gara eta bertan aztertzen dogu ea umeek benetako beharrianik daukien hona etorteko. Papera-kaz-eta be lagundu egiten deutsegu hare-

en familiei. Programan parte hartzeko izena emotea zabalik dago hemengo familientzat, eta gura dauenak gure al-kartera jo leike. Ez da baldintza berezirik bete behar harrera-familia izateko: ohiko familiak izan leitekez, guraso bakarrekoak, gazteak, helduak, alargunak, semea-ala-bakaz, ume barik... Umeak euren seme-alabak izango balira moduan tratau baino ez dabe egin behar.

Zelako laguntasuna jasoten dabe harrera-familiak alkartetik?

Programea zertan datzan azaltzen deutsegu, eta psikologoak be badoguz eurakaz berba egiteko. Ganera, umeak e-torten diranean, ez doguz barrik ixten. Monitoreak badaukaguz eta telefono zen-baki bat ipinten dogu familien eskura, ara-zorik badago deitzeko. Era berean, lagun-tza-familiak doguz kezkak-eta partekatu ahal izateko. Eta jarduera sorta handia antolatzen dogu, umeek bertan dagozan bitartean guztion artean egiteko. Oso esperientzia positiboa izaten da eta parte hartu gura daben guztiak esku zabalik hartzen dira alkartean.

Eta alkar-teak be jasoten dau la-guntzarik?

Diru-laguntzea jasoten dogu erakun-de batzuetatik. Besteak beste, Zamudioko Udaletik. Laguntzea bulegoko gastuak, paperak eta holakoak ordaintzeko erabil-ten dogu. Ume bakotxaren bidaia 600 euro inguru balio dau eta ha familiek ordaintzen dabe oso-osorik. Ondo legoke laguntza apur bat handiagoa eukitea, bidaiaren kostua txikiagoa izan daiten... Bitartean, zoketak, loteria eta abar egiten doguz, diru apur bat lortzeko.

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
Telefonoa: 94.453.64.13

Urtarrilaren 23an, 17:00etan

"KRI, KRA, KRO"
Teatro Paraíso
Haurrentzako antzerkia
3 urtetik 6 urtera bitarteko
umeei zuzenduta
(euskaraz)

+12 urte: 3 €
-12 urte: 5 €

sarreraren salmenta
944 310 310
www.bbk.es
bbk

BFA DFB
Bukalari Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia

ANTZERKIA

Urtarrilaren 15ean,
20:00etan

**"ELLIOT EL
GLADIADOR
DEL HUMOR"**
Umorezko
ikuskizun aparta

Sarrera: 8 €

t: Mikel Etxebarria, fisioterapeuta

Gure gizartean ohikoa da buruko mina, eta asko dira hori eragin dezaketen arrazoiak: tentsio muskularra, baskularra, hormonala, arazo neuropatikoak...

Arazoi horien artean tentsio-aldaketekin zerikusia dutenak dira ohikoenak; hau da, sorbalda, lepo edo buruko muskuluek esfortzu handia egin dutelako, buruko min sorra, jarraitua eta lausoa sortzen dutenak.

Muskulu bat kontrakturatuta edo gainkargatuta dugunean, horrek mina soilik gune konkretu batean sortzen duela

pentsatzeko joera dugu. Buruari dagokionez, esate baterako, hortzak indartsuki es-tutzeak buruko muskulu tenporala kontrakturatzea ekar dezake. Muskulu hori lokietan dago eta kontrakturatu ahal den buruko muskulu bakarra da. Hala ere, badaude beste muskulu batzuk eragina dutenak buruko minan. Muskuluok lepoan eta sorbaldan daude, eta gehiegi erabiltzen ditugunean, hainbat mekanismo jartzen dituzte martxan, mina bururaino

zabal dadin. Horiei "puntu kolpekariak" esaten zaie, eta muskulu guztiek badute bat edo gehiago.

Muskuluaren arabera, mina era batean edo bestean azaltzen da. Ondorioz, min mota, horren jatorria eta ondoeza areagotu edo gutxiagotzen duten jarrerak bereiz daitezke. Horrela, buruko mina zehatz-mehatz zein muskuluk edo muskulu-taldeek sortzen duten ezagut dezakegu.

Adibideak

Aipatzekoa da muskuluen laburpena dakarten jarrerek, zeinak denbora luzean mantentzen baitira, eta behin eta berriro egiten den mugimenduek martxan jartzen dituztela muskulu bakoitzari dagozkion puntu kolpekariak.

Jarrera mota horien adibide batzuk langile hauengan topa ditzakegu: informatikariak (burua eta sorbaldak aurreratu-ta dituztela daude ordenagailu aurrean. Gainera, sorbaldetako bat dute apur bat altxatuta, sagua edo teklatura mugitu ahal izateko); administrariak (belarri eta sorbaldaren artean jartzen dute telefonoa); mekanikariak (pezoian lan egiten dute, gorantz begira eta besoak altxatuta dituztela). Beste alde batetik, aisialdiari lotutako jarrerak ere sar ditzakegu multzo honetan: liburu bat irakurri edo kakorratz-lana egiten dugun bitartean burua beherantz izatea, adibidez.




**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

TXAKOLINA
LUISARBE



11% VOL. 75 cl.

Garaioitza, 87
TF: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Victor Gamboa Garabietak bildu, prestatu eta botilaratua
LEZAMA-SPAIN
N.R.E. 48 / 40558 / BE

**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**



Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen



Goizotza buroa, 37
LEZAMA
94 455 61 46

OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788





Gorrotza

**Berriztatze integralak
Gremioen koordinazioa**

Lehendakari Leizaola enparantza, 2 behea
48170 ZAMUDIO
Tel. 94 406 04 01 - Fax 94 406 04 08
Móvil: 615 742 788



BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK



LORRA, S. COOP.

Barrio Garaioltza, nº23
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Tel: 94 455 50 63 / Faxe: 94 455 62 45

e-mail: lorra@lorra-cg.net

www.lorra-cg.net

Teknologia erabili baino gehiago

t: Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria

Inguruan dituzuen tresna elektronikoak hartu eta non egin dituzten azterzea proposatzen dizuet: sakelako telefonoaren bateria, Txinan; mahai gaineko telefonoa, Txinan; sagua, Txinan; erlojua, Japonian; ordenagailuaren pantaila, Txinan; argazki-kamera digitala, Japonian... Ea Europan egindakoren bat topatzen dudan... Hara, topatu dut! Txekiar Errepublikan egindako ordenagailu bat topatu dut. Kostata. Baina tripetako memoria, disko gogorra era horrelakoak Asian egin-go zituzten, ziur asko.

Ez da harritzekoa, gailu elektronikoen %80a baino gehiago Japonia, Txina, Taiwan eta Malaysiatik baitatoz. Eta joan, nora doaz? Erdia inguru, Ipar Amerika; eta %20a Europara. Bidaia luzea, gailuak garraiatzeak ekartzen duena ere kontuan hartzen badugu. Autoan goazela, kutsatu egiten dugu. Baina autoa ez da kutsadura sortzen duen bakarra. Autoa salmentapunturaino garraiatzeak ere kutsatu egiten du; eta, ziur asko, horren elektronika gehiena Asiakoa izango denez, tresneria fabrikaraino eraman eta autoari ipini izanak ere kutsatu egin du. Beraz, ezin dugu esan auto garbirik dagoenik.

Teknologia erabiltzea kutsatzea besterik ez da, orduan? Alde batetik, bai; baina bestetik, ez. Eta inportantea da horrezaz jabetzea, teknologiaren bidez hainbeste gauza egin ez ezik energia aurreztu ere egiten dugulako, esate baterako auto arinagoak ekoizten direnean edo etxeak eraikitze material adimentsuak erabiltzen direnean.

Gailuen prezioa ondo baloratu behar dugu, hori ez dugulako soilik eurotan ordaintzen. Teknologiak hainbat esparru-



tan laguntzen digu, eta orain dela gutxi arte gaindiezinak ziren hainbeste erronka berari esker gainditu ditugu. Hala ere, horrek ez du esan nahi erronkok edozein preziotan onartu behar ditugunik, ezta ukatu behar ditugunik ere. Teknologia ondo baloratzen ikasi behar dugu, informazioa eduki, iritzia landu eta erabaki.

BTEK zentroan teknologia mota asko dugu erakusgai; jolasteko eta parte hartzeko teknologia dago gurean. Informazioa jaso, eztabaidatu eta aipatutako gauza guztien inguruko gogoeta egiteko tarteak ere baditugu, gure leloa "Bizi teknologia" baita. Eta teknologia bizitzea hori erabiltzea baino gehiago da.

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

pro audio

SOINUEN ADITUAK

Txori-erri et., 15
48150 Sondika-Bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com


- hi-fi
- radiozuzena
- telefonioa
- segurtasuna
- lehioaketa
- personalizazioa

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

arragandik gerta

ARROLATZEA - TASAZIOA
ALOKATZEA - ENKUALDATZEA
SALEROKETAK
SEGUROR BILBOAREN AGENTZIA



2011 mosuz hasiko da

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Zipiri!
–Egun on! Gutuna heldu dok Luki hire izenean.
–Eskutitza nire izenean Zipiri?
–Bai! Luki Olabarrieta. Zipirienea kafe-tegia.

–Zabaldu **eik**, Zipiri, **ia** zer dinoan!
–Txorirena dok!: Aspaldiko Luki. Badira egun batzuk zure emaila eta Zipirirena hartu nituala. Eskerrik asko halako loreberbak idazteagaitik. Zuek zarie txirene pare!
Boise honetan alaitu egiten gaitu euskaldunak topeteak. Zelango pozaldia Capi-

tol Blvd-en, aurrez-aurre ikusi nebanean Jose Luis Egiluz Txorierrri Institutuko zuzendaria familia ederra lagun dauela!

–Eta holan jarraitzen jok gure Txoriren eskutitzak:

Boise honetan 10 gradu daukaguz zeropetik. Lar be ez da, kontuan hartzen badogu unibertsoko temperaturarik baxuena 273 gradukoa izan leitekeela.

–Dino gerotxuago: urte barria telebista aurrean hasten dogu, New York-eko Urtebarri zelan ospatzen dan ikusiz; izan bere, New York-en 24:00ak diranean, Boisen 22:00ak dira-eta. Bestalde, mahaian apple pie gozoa nahiz coca-cola zein indioilarra edo txanpana ez dira faltako.

Gero, amerikarrok erregerik ez daukenez -Euskal Herrian be ez daukagu- urtarri-laren 1ean amaitutzat Christmasak; danak lanera.

Gure Olentzero ez da santua, baina hemengo Claus bai ze, Santa ipintzen deustsie aurretik.

Zuhaitza, beti leiho parean, agirian, kaletik argi baizen garbi ikusi daiten.

–Ederrena **ontxe** dinotsu Txorik:

Gabon zahar gauean, 24:00etako kanpai hotsetan, hor mahats garauak jaten dira. Hemen, barriz, mahats-ordua barik mosu-ordua da. Tradizioa da, alboan daukazunari mosua emotea. Urtea mosuz hasten da.

–Hori bai ohitura polita Zipiri! Nor legokeen Boisen!

–Bai, Luki ze, ganera, atsotitzak dino: Eguberri norekin Urtebarri harekin.



aisia DERIO
H ***

Zamudioko Teknologia Parkea
806 er. - DERIO
T. 94 4317680
www.aisiahoteles.com

BASERRI menua

Landeetako foie-micuit-a, Gernikako piperrak eta, noski, plater nagusia: kilo bateko txuletoia

Ohitura zaporea duen menua da eta soilik balio du...

29 €

personako
%7ko BEZa
(ez dago barne)



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA

**Zer aurkeztu dute
TOTOANek eta Itzarrik
Durangoko Azokan?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
–Telefonoz: 94 452 34 47
–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna: Kurutze dantza taldea
Irabazlea: Arantza Mestraitua

Etxeko sukaldaritza

Porruen kremea
(Vichyssoise)*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- Oliba-orio zurrusta bat
- Kilo erdi patata (garbituak eta dadotan ebakiak)
- Lau porru eder (garbituak eta txikituak)
- Litro erdi oilasko-salda
- 300 ml esne
- 100 ml esnegain
- Gatza eta perejil apur bat (txikitua)

Prestatzeko area:

Su ez-tian, bost minutuan, patatak eta porruak prijiduko doguz orioagaz. Saldea gehitu eta su ez-tian beste 25 minutu inguru eukiko doguz egosten. Eginda dagozanean, atera eta hotzitzen itxiko doguz. Ondo irabiau eta gatza, esnegaina eta esnea botako doguz. Ondo irabiau dogu. Kremea hotz, epel edo bero zerbitzatu daiteke. Gustukoa bada, perejil apur bat be bota daiteke ganetik.



Zapoa mahaspasakaz (txakolin-puntuagaz)

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 800 g zapo (medailoitan ebagia)
- Kipula bat
- 2 berakatz-atal
- Porru eder bat
- Txakolin apur bat
- 300 cl ur
- 50 cl esnegain (arina, ez lodia)
- Oliba-orio zurrusta bat
- Perejila eta gatza
- Lata bat mahats-pikor (edo freskoak erosi eta kendu azala)

Egiteko area:

Kipulea, berakatzak eta porrua txikitu-

ko doguz eta eltze baten, su ez-tian, jarriko doguz prijiduten oriotan. Gatz apur bat botako dogu. Handik 10 edo 12 minutura txakolin apur bat botako dogu eta alko-hola kendu arte eukiko dogu irakiten. Ura gehitu eta irakiten beste 10 minutuan, su ez-tian, eukiko dogu. Esnegaina eta perejil txikitua bota eta ondo irabiau dogu. Beharrezkoa bada, gatza zuzenduko dogu. Mahats-pikorak gehituko doguz. Zapo-medailoiak zartagin edo plantxa bero baten egingo doguz, bi aldeetatik gorritu arte. Zapoa kazuela baten ipini eta saltsea ganetik botako deusagu. Su ez-tian bi edo hiru minutuan eukiko dogu.

harategia - urdalategia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autoocasion **NA**
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

POXPOLIN
OPARIAK ETA ARDPA
94 656 72 35
ARALAR, 4
DERIO

ganiso
OINETAKOAK - OSAGARRIAK
Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrerar Goiko kaletik)
tfnoa.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaia)

HORTZ - KLINIKA
Jasone Azurmendi Garai
Pakearen Plaza, 1 - 1º A.
DERIO
Telefonoa: 944 543 705

Aibaitaritza **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA
Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)
DERIO
LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

Gaztai-tartea (laban eginda)

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 225 g "Maria" gaileta (birrinduak)
- 50 g gurin (urtua)
- 500 g gaztai (Philadelphia edo antzeara)
- 2 koilarakada ezti
- 50 g azukre baltz
- Gatz apur bat
- 2 arrautza (irabiauak)
- Kanela-hauts apur bat (apintzeko)

Egiteko errea:

Gailetak eta gurina (gurinak epel egon behar dau) nahastu eta molde batera botako dogu (azpikaldea kentzen danetarikoa izan behar dau moldeak). Orea ondo zabalduko dogu eta hozkailuan sartuko dogu hotzitu arte (ordu erdi inguru).

Betegarria egiteko, gaztaia, ezti, azukerea eta gatz nahastu eta ondo irabiau doguz. Arrautzak banan-banan botako doguz krema mehea lortu arte. Laban 45-60 minutuan eukiko dogu 150 gradutan. Eginda dagoanean, labea amata eta bertan itxiko dogu hotzitzen. Gustukoa bada, ganetik kanela apur bat botako dogu zerbitzatzeko orduan.

Bakoren bazterra



Mahastizainak

Iñaki Suárez, sumillera

Ohar zaitezte, aikorlagunok, mahastia hain dela magikoa, ezen haren fruitua gehien kontsumitzen den sasoian, Gabonetako egun hauetan, hibernatzen bezala egoten baita landarea, egonarritsu, gure dastatze ona ospatuz eta, aldi berean, indarrak bilduz bere ziklo begetatiboari amaiera emateko.

Hala azaltzen dit Alberto Valdeyok, adiskidea baita, beste ezer baino lehen, eta, gainera, baserritarra, mahastizaina, mahastiaren gizona, Errioxa eta, zehazkiago, San Vicente de la Sonsierra zainetan daramana, bere mahastiei buruz hitz egitean hunkitzen eta hunkitzen dena. Gure azkeneko elkartean, bertatik bertara azaltzen dit nolakoa den inauteko artea: eder ipini behar da landarea, ondo bideratu, gal ez dadin bidean, interesik txikiena duten erpuruak ebaki (ulertu egin behar da mahastia, halakoak zeintzuk diren ezagutzeko) eta bost besterik

ez utzi landare bakoitzean, kalitatearen eta etekinaren arteko erlazio onena bilatzeko.

Harrizko eraikin bat ikusten dut urru-near, eraikuntza zahar baten antza duena distantzia horretan, eta, hartaz galdetzeran, mahastizainak direla erantzuten zait; hau da, lehenagoko eraikuntza batzuk, XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendearen lehenengoan izan baitzuten arrakastarik handiena; izan ere, orduan ez zituzten orain ditugun garraio bide modernoak, eta lur landuetatik etxeetaraino distantziek eragozten zuten etxera itzultzea bazkaltzeko. Aterpetzat erabiltzen ziren halako eraikuntzak, eguraldi txarra egiten zuenean, bai eta mahastizainen elkargunetzat ere, haietan jesartzen baitziren suaren inguruan jateko, hitz egiteko eta atsedean hartzeko. Iluntzean, gizon bat geratzen zen normalean, mahastizaina, mahastiak lapurren edo piztien erasoetatik zaintzen zituena.

Eraikuntza horiek Errioxako kultura-ondaretzat hartzen dira gaur egun, eta berreskuratzen ari dira apurka-apurka. Beharbada ez dugu jakingo, baina guztiok topa egiten egongo garen bitartean, aikorlagunak, urteari agur esateko eta berriari harrera egiteko, asmo onez beterik, baliteke mahastiak zaintzen egotea norbait, ziurtatuta egon dadin ardo ona izango dugula gozatzeko. Mahastizaina izango da pertsonaia magiko hori. Urte-berri on! On egin!

 **Ercoreca**
supermerkatuak
Elikaduran adituak

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alartza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA



ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TXORIERRI MARMOLDEGIA



Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Patxi S.KOOP.
BAMATZARRE OFIZIALA



Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etkezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✆ faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop
www.patxi.coop

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK



Rafael García Tejero

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

ATARRABI



Errementeri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

aldeko ne
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti



Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti@euskalnet.net

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

OPTICA MODERNA



Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99

BAR BIDE-BI



Goizeko 5etatik aurrera zabalik
Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

Txorierri



Rocio Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759
Kepa Herguedas Manso
Col. nº 48000757
María Conde Bilbao
Col. nº 48000983

Mixina 6. bajo - 48150 - Sondika (gehokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.cdxorierri.com

Martinez Zaldueño Doktorea

Mediku odontologoa
EHUko Odontologia Irakaslea
Pankry EEUU Protektat

Clínica Sondika
Dental



*1983tik hona zainitzen dugu zure bizi-irribarra

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
Faxa: 94 453 11 68
e-mail: sondikadencii@euskalnet.net
www.euskalnet.net/sondikadencii



Gomendioak

Gotzon Barandiaran

DARWIN GUREAN

Kepa Altonaga. Pamiela, 2010



Historiako mende eta erdiko errepasoa eginez, euskaldunok Darwinen eboluzioaren teoriara lotzen gaituzten hariak josi ditu Kepa Altonaga sortzez txorierritarak. Hautespén natural bidezko eboluzioa zientziari dagokion ikerketagaia izanda ere, liburua saiakera literarioa dela esaten ausartuko gara bi arrazoiok argudiatuta: narrazio bakarra izateko helburu argia eta idaztestiloa. Txundigarria egin zaigu Kepa Altonagak darwinismoak euskaldunongan izan duen eragina kontatzeko aurrez korapilatu ezinak diruditen pertsonaiak zelan matxin-bratu dituen.

Munduko literatura lanik esanguratsuenetako pertsonaia nagusiak izan daitezkeenak ezagutarazi dizkigu liburuak: Leon Uthurburu, Armand David, Joxe Aratzabaleta eta Domingo Ordoñanaren eta ,batez ere, Jean Etchepare, Aldudeko medikua. Kepa Altonagak ederto baten ezagutzen duen Etchepare izan zen XX. mendearen hasieran euskaraz eboluzioaren teoriaren alde egin zuen bakarra. Liburuak ahalegin horren historia kontatzen digu, ez zientziak mozkortutako jakintsu aspergarriaren jariopean, ez bada idazle baten lumaz.

Sudokua

		9					
		8		4	2		3
				3	5		
5			4	1		9	8
		1				7	5
				9	7		4
						8	
			7		1		4
		2			9		3

4	3	5	9	8	1	2	7	4
8	5	6	2	7	3	1	9	4
1	9	3	6	5	4	8	7	2
2	8	6	7	9	5	9	8	1
6	4	1	2	3	6	7	8	5
5	3	7	4	1	6	9	2	8
6	1	4	7	3	5	2	8	9
7	5	8	6	4	2	9	1	3
3	2	9	8	6	1	4	5	7

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 75

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben

Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinao 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>


electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea
*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*
Aizkorri Kalea, 1 • Tel: / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)

Udondo IRISH TAVERN
zuzeneko emanaldiak
Pintxo eta garagardo ezberdinak
Mungialde etorbidea, 3 • t: 94 601 61 49




Jaietan be EUSKARA AHOAN!
Gozatu jaiak euskaraz!


Kobiza Plaza 2 - 4.D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19
Estudios 10 Ikastegia
Pakearen Plaza 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 13


solarium arin horizontala
dubxen zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta
tel.: 94 454 35 80
Goiko kalea, 2 - 48160 Derio


Jai zoriontsuak!
Liliak Loradenda
Erdiko kalea, 2
Telefonoa: 94 454 12 23
48016 DERIO
Mobila: 657 79 75 93


Sandwichak Hanburesak
Plater konbinatuak **Gosariak**
Urdaiazpiko iberikoa
94 454 35 99
Gernikako Arbola, 4 | 48160 DERIO


dribbling sport
KIROL EKIPAMENDUAK
FUTBOLA • SASKIBALOA
ATLETISMOA • GIMNASIA
PSIKOMOTRIZITATEA • SAREAK
GARAIAKURRAK • DOMINAK
KIROL ORDOKORRA
AIZKORRI KALEA, 1
TELEFONOA 94 454 10 01
48160 - DERIO (Bizkaia)


OXANGOITI
Kutur Elkarte **TABERNA**
Etxean gura
doguz Gabonetan
Aurrera Oxangoiti!
Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA


leke,s jatetxea
Tel: 94 454 29 86
restaurantelekes@gmail.com
Santitxan, 2. Zamaudio, 48170
E GUNEKO MENUA CATERING W(F) GUNEK
BAZKARI ETA AFARI BEREZIAK
(ALDEZ AURRETIK ESKATUTAI)

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean ahalegin handia egiten dugu ikerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrakoak eta atmosferara CO² gutxiago isuriko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horren garapenean berrikuntzak eginez, eta etengabe hobetzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Baimen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.

Ingurumena errespetatzeari dagokionez aitzindari izateko jarri genuen helburua betetzen ari gara.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

www.itp.es

ESKOLA ERAMANGARRIAK 2



bai & by

ETA MINTZAMEN TELEFONO-ESKOLAK!

ZAMUDIO 944 31 80 47

BILBO 944 70 18 57

GETXO 944 91 50 60

WWW.BAIBY.COM

*2 MODULUTIK GORA KONTRATATZEAN ETA IZAKINAK AGORTU ARTE.

A BAI&BY PICTURE.